



ETXEBIZITZAKO
BEHATOKIA

OBSERVATORIO
VASCO DE LA
VIVIENDA

Europako Etxebizitza Politikari buruzko txostena





Aurkibidea

1. Aurkezpena	3
2. Hiri-politika 2014-2020 programazio-aldian: hiri-agenda berrirantz EBn	4
2.1. EBrako hiri-agenda berrirantz	4
2.2. Hiri-garapen iraunkorra 2014-2020 programazio-aldi berrian	5
2.3. Programazio-aldi berrirako finantza-tresnak	7
3. Espainiaren Elkartze Hitzarmena 2014-2020 eta hiri-garapen iraunkorreko estrategiak	10
3.1. Espainiaren Elkartze Hitzarmena 2014-2020	10
3.2. Esku-hartze proposamenak Elkarte Hitzarmenaren eremuan	12
3.3. Hiri-garapeneko estrategia integralak Elkarte Hitzarmenaren esparruan	16
4. Hazkunde Iraunkorreko Eskualde Askotako Programa Operatiboa 2014-2020	20
4.1. Programaren irismena	20
4.2. Inbertsio-lehentasunak Programaren esparruan	21
4.3. Programan aurreikusitako jardueren ezaugarritzea	24
4.4. Programa Operatiboaren finantza-estrategia	28
5. EGEF 2014 2020 Eskualdeko programa Operatiboan Anlisi konparatzailea	30
5.1. EGEF 2014-2020 Programa Operatiboan panoramika orokorra eta etxebizitza politikarekin lotutako inbertsio-lehentasunak eta helburu espezifikoak barnean sartzea	31
5.2. 2014-2020 EGEF Eskualdeko Programa Operatibo aukeratu batzuetan sartutako etxebizitza esparruko jardueren analisi konparatzailea	37
6. Ondorioak	47

1. Aurkezpena

Txosten honen helburua zera da: 2014-2020 programazio-aldi berriaren eremuan, hiri-garapen iraunkorra eta bizitza politiken eta programen bultzada eta finantzaketa arloetan gertatu diren berrietasunak aztertzea.

Txosten horren zehar egiazta daitekeenez, etxebizitza politikekin lotutako jarduerak kontuan hartzean nolabaiteko aurrerapena ekarri du programazio-aldi berriak. Edozelan ere, aurrekontu-zuzkidura gehienak energia eraginkortasuna hobetzearekin lotuta daude, Programa Operatiboan 4. Ardatzaren bitartez. Zentzu horretan, txostenaren 4. eta 5. Kapituluetan zehar, eraikin eta etxebizitzetan energia-eraginkortasuna hobetzeko politikekin lotuta dauden jarduerak identifikatu nahi izan dira, gai-helburu gehienetan energia-politikarekin lotuagoak dauden bestelako jarduerekin batera agertzearren.

2014-2020 programazio-aldirako hiri-politikaren jarduera-esparruaren ikuspegi eguneratua eskaintzen du txostenaren bigarren kapituluak, arreta berezia eskainiz europar hiri-agenda egiteko jarraitzen ari diren urratsei.

Txostenaren hirugarren kapituluak Espainiaren Elkartze Hitzarmena deskribatzen du, Eskualde Garapeneko Europako Funtsaren (aurrerantzean EGEF) finantzaketa eskuratzeko dauden ondorio nagusiak eta baita 2014-2020 aldian EBk bultzatuko dituen hiri-garapen iraunkorrerako estrategia berriak egiteko orientabideak identifikatuz ere.

Laugarren kapituluak estatu mailako Hazkunde Iraunkorrerako Eskualde Askotako Programa Operatiboa 2014-2020 aztertzen da. Bosgarren kapituluak, berriz, ikerketa-esparruarekin lotutako zeharkako azterketa egiteko bereziki interesgarritzat hartu diren Eskualdeko Programa Operatiboan aukeraketa aurkezten da.

Nolanahi ere, azpimarratu behar da programa guztiak ez daudela guztiz eginda; hortaz, horietako batzuk Europako Batzordearen behin betiko onspenaren zain daude eta, beraz, txostenaren seigarren kapituluak adierazten diren ondorioak zuhurtiaz hartu behar dira.

2. Hiri-politika 2014-2020 programazio-aldian: hiri-agenda berrirantz EBn

2.1. EBrako hiri-agenda berrirantz

2014-2020 programazio-aldi berriko ezaugarri nagusietariko bat zera da: EB osoak hiri-agenda har dezala bultzatu nahi duela Europar Batzordeak.

Gauzak horrela, EBko nazio, eskualde eta tokiko administrazio guztiei irekitako kontsulta publikoko prozesua bultzatu du Batzordeak, 2014-2020 programazio-aldi berriko esparruan hiri-agendaren helburuei eta funtzionamenduari buruzko iritziak eman zitzaten. Prozesu hori 2014. urtearen bukaeran¹ amaitu zen, haren lehenengo emaitzak zabaltzeko zain egonez.

Era osagarrian, 2014an zehar, EBko politikan funtsezkoak diren beste eragile batzuk (hala nola: Europako Parlamentua, Eskualdeetako Komitea eta Europako Ekonomia eta Gizarte Komitea) EBn hiri-garapen politiketan hiriek hartu behar duten handituz doan rolaren alde egin dute, horretarako EBrako hiri-agenda egitea ezinbestekoa dela azpimarratuz. 2014ko apirilean, kohesio-politikaren arduradunak diren EBko ministroek eskatu zuten tokiko, eskualdeko, nazioeko eta EBko ekarpenak kontuan har zitzan agendak.

Deialdi horietatik aurrera, 2014-2020 aldian EBren politikan hiriaren tamainak bete behar duen eginkizuna zehazten saiatzen diren zenbait komunikazio egin ditu Batzordeak². 2014-2020 aldian hiri-garapena bultzatzera zuzendutako programak eraginkorragoak izan daitezzen alderdi kritikoak identifikatzea da dokumentu horien abiapuntua, besteak beste:

- EBko politikan tokiko agintariek bete duten rol eskasa, 2015-2020 aldian EBk batera finantzatzen dituen programen eta proiektuen ezartze-palanka gisa hiriek duten potentziala azpimarratuz.
- Gobernantza-maila ezberdinen arteko (tokikoa, eskualdekoa eta naziokoa) koordinazio-mekanismoetan dauden gabeziak.

Beraz, Egitura Funtsek lagundutako politiken eta programen kudeaketan hiriek bete behar duten zeregin nagusia da hiri-agenda horren funtsezko alderdia, haiek baitira hiritarren premiak modu koordinatuan kudeatzeko ikuspegi eta ahalmen sendoagoak dituztenak.

¹ http://ec.europa.eu/news/regions/140730_es.htm

² Horietatik nabarmendu da azken COM (2014) 490.

Halaber, eginkizun hori azpimarratzen duten komunikazio eta dokumentu ezberdinen artean, Eskualde eta Hiri Politikaren Zuzendaritza Nagusiaren “Biharko Hiriak” dokumentua dago, zeinek hiriak hartzen baititu lurralde-garapenerako faktore nagusitzat Europa 2020 Estrategiaren esparruan, funtsezko printzipio batzuen bitartez:

- Hazkunde ekonomiko orekatua eta jardueren lurralde-antolaketa, zentro anitzeko hiri-egitura duena.
- Metropoli-eskualde sendoak eta interes ekonomiko orokorreko zerbitzuetara irisgarritasun egokia ekar dezaketen beste hiri-eremu ardatz hartzea;
- Hirien barnean eta inguruan ingurumen-babespen eta kalitate maila altua erdiestea.

Era osagarrian, hiri-agenda hori EBn egituratzeko Batzordeak planteatutako gogoeta eta orientabide ezberdinen artean, ondorengoak azpimarra daitezke, ezarriko diren hiri-garapenerako estrategia berriein duten loturagatik:

- Administrazioen eta gobernantza-sistemen arteko koordinazioa hobetzeko premiari erantzutea, politikak aplikatzeko testuinguruak ulertzen lagunduz (hiriguneak eta haien inguruneak).
- Hirigune beran ezartzen diren politika eta programa guztietarako esparru koherentea integratzen eta sortzen laguntzea, elkar osatzen eta laguntzen direla bermatuz.
- Hiri-ekonomia bideragarri eta iraunkor bihurtzeko hiriek duten gaitasuna bultzatzea dimentsio ezberdinetatik (soziala, ingurumenekoa, lurraldekkoa, eta abar).
- EBren politikak hiritarrengan hurbiltzen laguntzea, horietan parte har dezatela eta nahas daitezela lagunduz.

Hiri-garapenari eta programazio-aldi berrian hiriek betetzen duten eginkizunari bultzada aurrekontu-apustu indartsuan hezuramaitzen da, EGEFren kasuan. Kapitulu honen 2.3 atalean adierazten den bezala (finantzaketa-tresnak), hiri-politikaren bultzadaren ondorioz, 2014-2040 aldian, EGEFren funtsen % 50 gutxienez (90.000 milioi euro inguru) hiriguneetara zuzenean bideratuko da Programa Operatiboen bitartez, eta % 5 hiri-garapen iraunkor integraturara bideratuko da.

2.2. Hiri-garapen iraunkorra 2014-2020 programazio-aldi berrian

Programazio-aldi berrian, hiri-garapen estrategia integratuak ikuspegi holistikotik aztertu dira. Horretarako, EGEFek hiri-garapen iraunkorra lagunduko du, eta horretarako bideratuko dituen estrategietan hiriguneei eragiten dieten erroka ekonomikoei, ingurumenekoei, klimatikoei eta sozialei aurre egiteko neurriak jasoko ditu (EGEF erregelamenduaren 7.artikulua)³; hortaz:

- Baliabideak modu integratuan bildu beharko dira hiri-erroka espezifikoak dituzten eremuei erantzuteko.
- Hiri-garapenerako proiektuak programen helburu zabalagoetan integratuak egon beharko dira.
- Europako Gizarte Funtse eta EGEF sinergian erabiliko direla bermatu beharko dute EBko estatu kideek, enpleguarekin, hezkuntzarekin, gizarteratzearekin eta erakunde-gaitasunarekin lotutako eta estrategia integratuen esparruan diseinatutako eta aplikatutako neurriak indartzeko.

³ Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2013ko abenduaren 17an onartutako 1303/2013 zk.ko Erregelamendua (EB), non Eskualde Garapenerako Europako Funtse, Europako Gizarte Funtse, Kohesio Funtse, Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtse eta Europako Itsaso eta Arrantza Funtse lotutako xedapen komunak ezartzen baitira eta Eskualde Garapenerako Europako Funtse, Europako Gizarte Funtse, Kohesio Funtse eta Europako Itsaso eta Arrantza Funtse lotutako xedapen orokorrak ezartzen baitira, eta Kontseiluaren 1083/2006 (EE) Erregelamendua indargabetzen baitu (<http://www.boe.es/doue/2013/347/L00320-00469.pdf>).

Adierazi bezala, estrategia horien diseinuan eta bultzadan hiriek betetzen duten eginkizunak aurrerapauso kualitatiboa eman behar du Programa Operatibo berrietan, hiri-aginte horiengan nolabaiteko eskuordetzea egiteko premia esplizituki kontuan hartu behar duelarik (EGEFren erregelamenduen 7(4) eta 7(5) artikulua). Hala ere, hirien aldetik egindako kudeaketaren eskuordetze horren intentsitatea ezin da zehaztu, eta erabaki hori estatu kide bakoitzean zehaztuko diren erakunde-akordioetara eraman da.

Hiri-garapen iraunkor integratu horren instituzionalizazio-prozesu horretan une garrantzitsua izan da “Smart Cities and Communities-European Innovation Partnership”⁴ Europako Batzordearen Komunikazioa. Horren arabera, “Kohesio Politikak lagunduko du hiri-garapen iraunkor integratua EB osoan, EGEFren, EGIFren eta Kohesio Funtzaren inbertsioen bitartez, energiaren, garraioaren eta IKTen esparruan garatutako hiri-aplikazio teknologikoen industriak bultzatutako ikuspegitik”.

Hiri-garapen iraunkor integratuaren aldeko apustu hori EBko eskualde-politikak duen esperientzia zabalean oinarritzen da; hortaz, hirietan eta hiriguneetan jardura integratua laguntzen duten bestelako tresnak baditu Europako Batzordeak hainbat urtez geroztik, esperientzien, ezagutzaren eta praktika onen arteko trukea bultzatzen dutenak. Horiek dira, hain zuzen, Hiriko Lurralde Lankidetzaren Programak.

- **URBACT**: 2003an sortutako programa, URBAN-en integratua, EBko 200 hirien artean praktika onak identifikatzeko egitura-esparrua eskaintzen du. URBAN programari etekina ateratzen dioten hirien arteko trukeak antolatzea du helburu, egindako esperientzietatik ikaskuntzak ateratzeko eta ezagutzera emateko.
- **URBAN AUDIT**: Europar 258 hirietako eta 27 herrietako hiri-estatistikak ematea du helburu. Europako Batzordearen DG REGIO ekimenetik bultzatu zen, EUROSTAT-ekin eta nazio mailako 27 estatistika-bulegoekin lankidetzan.

Era osagarrian, 2014-2020 programazio-aldian, aukera berriak zabaltzen dira hiriek hiri-garapen iraunkorraren eremuko proiektuak bultzatzen dituzten lankidetzaren publiko-pribatuko mekanismoen bitartez, besteak beste, Horizonte 2020, Programazio Bateratutako “Europa Urbana” ekimena, hiri-politikei buruzko ezagutzen europar sarea (EUKN) edo URBACT III berria.

⁴ <http://ec.europa.eu/digital-agenda/en/news/smart-cities-and-communities-european-innovation-partnership-communication-commission-c2012>.

Azkenik, adierazi behar da 2014-2020rako Funtsen erregelamenduen esparruan tresna berriak ezartzea espezifikoki aurreikusten dela, hala nola, Lurralde-inbertsio Integratuak (LII) eta tokiko garapena tokiko komunitateen ardurapean (TGTK), hiri-garapen iraunkor kontzeptua Eskualde Askotako eta Eskualdeko Programa Operatiboetan⁵ gauza dadila erraztuko dutenak.

URBACT III:

2014-2020an Hiri-garapen iraunkor integraturako Europar Lankidetzeta Programa

URBACT I eta IIren ondoren, programazio-aldi berrian URBACT III izango da hiri-garapen iraunkor integratua sustatzen jarraituko duena. Hiri-politikei buruzko esperientzien eta praktika onen trukearen bitartez lan-sistema bateratuak eta hirien premiei erantzuteko konponbide integratuak hirietan abian jartzea da URBACT ekimenak duen helburua programazio-aldi berrian.

Nortzuk dira onuradun nagusiak?

Estatu Kideetako hiriak eta herriak (udalerriko tamainan mugarik ez dagoelarik), tokiko politikako beste maila administratibo batzuk (metropoliko agintariak, aglomerazio antolatuak, barrutietako eta auzoetako agintariak) eta baita udalekoak ez diren zenbait bazkide ere, hala nola: tokiko agentziak, probintziako, eskualdeko eta nazioako agintariak eta Unibertsitateak eta Ikerketa-zentroak.

Zein motatako jarduerak finantzatzen ditu?

Finantzatutako jarduera nagusiak dira:

- Nazioz gairik sarea sortzea, Hiri-estrategia Integratuak diseinatzen eta ezartzen hiriak laguntzen dituztenak.
- Hiri-eragileen gaitasuna eta prestakuntza hobetzea, Programazio-aldi berriaren esparruan Europako Batzordeak bultzatu nahi dituen ikuspegi integratuak eta parte-hartzaileak gara ditzaten.
- Toki, eskualde, nazio eta Europa mailan iraunkorrak diren hiri-politikak hobeto diseinatzeko ezagutzak eta praktikak komunean jartzea.

Noiz jartzen dira abian deialdi berriak?

2015aren hasieran, nazioz gairik sareen bitartez egindako deialdi irekien bitartez.

2.3. Programazio-aldi berrirako finantza-tresnak

Europa 2020 Estrategiaren aplikazioaren eremuan, Europar Batasun osoaren garapena sustatzeko tresnak dira Egitura-funtsak. Espainiar Estatuak finantzaketa jasoko du lau finantza-tresna horietatik 2014-2020 aldian⁶:

- Eskualde Garapenerako Europako Funtsa (EGEF)
- Europako Gizarte Funtsa (EGF)
- Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsa (LGENF)
- Europako Itsaso eta Arrantza Funtsa (EIAF)

⁵ Tresna horiek azpimarratuak izan dira jada Etxebizitzaren Euskal Behatokiaren aurreko zenbait txostenetan, haren garapena gauzatuko al den eta tresna horiek aurreikusten dituzten Programa Operatibo bakoitzean hartuko dituzten antolaketa-erak aztertzean dauden arren.

⁶ Espainiak ez du Kohesio Funtsik jasoko 2014-2020 aldian.

Funts horiei esker behar den finantzaketa publikoa eta pribatua lortuko da eta ondorengo helburuak bete ahal izango dira 2014-2020 aldian:

- Hazkundera eta enpleguan inbertsioa (funts guztien garapenari esker)
- Europako lurralde-lankidetzak (EGEFren garapenari esker)

Halaber, 2014-2020 Kohesio Politikaren programazioak, Europar Batasuneko Funtsen Zuzendaritza orokorrak⁷ koordinatuta, ondorengo dokumentu estrategikoak egitea aurreikusten du:

- Espainiaren Elkartze Hitzarmena; hau da Kohesio Politikaren funtsak inbertitzeko estrategiak eta lehentasunak adierazten dituen dokumentua, eta txosten honen hirugarren kapituluan ekiten zaio.
- Operatiboak (45 programa)⁸; hauek dira Estatu kide bakoitzak aurkeztutako eta Europako Batzordeak onetsitako dokumentuak, eta Erkidegoko Laguntza Esparrua garatzea dute helburu; esparru hori urte anitzeko neurriek osatutako lehentasunezko ardatz multzoak osatzen du. EGEF Programa Operatiboak laugarren kapituluan aztertzen dira (Eskualde anitzekoei dagokienez) eta Eskualdeko programa Operatiboak, aldiz, bosgarren kapituluan lantzen dira.

Funts horien finantza-banaketa hainbat esparrutan egituratzen da; esparru horiei “gai-helburuak” deritze.

1. Ikerkuntza, garapen teknologikoa eta berrikuntza sustatzea
2. Informazio eta komunikazio teknologien erabilera eta kalitatea hobetzea eta eskura izatea erraztea
3. Enpresa txiki eta ertainen lehiakortasuna hobetzea, nekazaritza sektorekoak (LGENFren kasuan) eta arrantza eta akuikulturakoak (EIAFren kasuan)
4. Karbono urriko ekonomiara igarotzen laguntzea sektore guztietan
5. Klima-aldaketari egokitzea eta arriskuak prebenitzea eta kudeatzea
6. Ingurumena babestea eta baliabideen eraginkortasuna sustatzea
7. Garraio iraunkorra sustatzea eta itoguneak ezabatzea funtsezko sare-azpiegituretan
8. Enplegua sustatzea eta langileen mugikortasuna laguntzea
9. Gizarteratzea eta pobrezia aurreratu borroka sustatzea
10. Hezkuntza, gaitasunen garapenean eta etengabeko ikaskuntzan inbertitzea
11. Erakundearen gaitasuna eta administrazio publikoaren eraginkortasuna hobetzea


2014-2020 aldian, 28.600 milioi euro bideratuko zaizkio Espainiari, gutxi gorabehera, kohesio politikaren eremuan (EGEF eta EGF). Bestalde, Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsak (LGENF) 8.300 milioi euro dakartza nekazaritza sektorearen eta landa-guneen garapenerako. Europako Itsaso eta Arrantza Funtsaren (EIAF) diru-hornidura 1,16 milioi euro da.

⁷<http://www.dgfc.sggp.meh.es/sitios/DGFC/es-ES/Paginas/inicio.aspx>

⁸3 Estatuko Programa Operatiboak EGEFk kofinantzatutakoak (ETE ekimena, Hazkunde adimentsua eta Hazkunde iraunkorra); EGEFko Eskualdeko 19 Programa Operatibo (eskualde bakoitzeko bat); Estatuko 4 programa operatibo EGFk kofinantzatutakoak (Enplegua, Hezkuntza eta Prestakuntza, Gazteen Enplegua, Gizarteratzea, Laguntza Teknikoa); EGFko Eskualdeko 19 Programa Operatibo (eskualde bakoitzeko bat); Landa garapenerako estatuko programa bat eta eskualdeko 17 programa (LGENFk kofinantzatutakoak; eta koherentzia bermatzeko estatuko esparrua eta, azkenik, programa bat arrantzaren esparruan (EIAFk kofinantzatutakoak).

Banakapena gai-helburuaren eta funtsaren arabera – 2014-2020

Espainiarako



Era osagarrian, Europako Batzordeak adierazten duen bezala, 2014-2020 aldian EGEF funtsen % 50 hiriguneetan inbertituko da Programa Operatibo nagusien bitartez, eta EGEFren estatuko diru-horniduren % 5 gutxienez hiri-garapen iraunkor integratuari egokituko zaio, haren lehenasunezko izaera Estatu guztietan bermatzeko asmoarekin.

Adierazi den bezala, Estatu kide bakoitzak, osagarri gisa, EGEFk egokitutako baliabideen % 5 inbertitu behar du gutxienez hiri-garapen iraunkorrerako estrategia integratuak aplikatzean; horretarako, aukera ezberdinak daude:

- Lurralde-inbertsio integratuaren LII) tresna aplikatzea.
- Programa Operatibo espezifiko ezartzea.
- EGEFren Erregelamenduaren (7(2) artikulua) lehenasunezko ardatz zehatzaren bitartez.

Programazio-aldi berrian aurreikusten da ere 330 milioi euroko diru-hornidura EB osorako, hiri-garapen iraunkorraren eremuan egindako ekintza berritzaileak finantzatzeko (EGEFren Erregelamenduko 8. Artikuluan ezarritakoaren arabera). Batzordeak adierazten duenez, hiri-ekintza berritzaile horiek jaso beharko dituzte hiriguneen premiei erantzungo dieten ikerketa eta proiektu pilotuak.

Txostenaren xedeetarako bereziki adierazgarria dena zera da: aipatutako funtsak mobilizatzeko Hiri-garapen Iraunkor Integraturako Estrategia beharrezkoa izango da, eta egoki zehaztuta egon beharko du, eragile ezberdinen parte-hartze eraginkorrerako eskakizunak bete beharko ditu, ekintzen, neurrien eta erdietsiko diren emaitzen denbora-planifikazioa zehaztu beharko du eta:

- Zeharkako izaera eduki beharko du, 1303/2013 Erregelamenduko 9. Artikuluan zehaztutako gai-helburu biri gutxienez ekinez, eta horietako bat gizarte izaerako helburua izan beharko da (gai-helburu 8, 9 edo 10).
- Izaera sozialeko, ekonomikoko eta ingurumeneko adierazleetan eta aldagaietan oinarritutako hirigunearen mugaketatik abiatu beharko da. Kudeaketa-agintaria Europar Batasuneko Funtsen Zuzendaritza Orokorra⁹ izango da edozein kasutan.

⁹ Estatu Administrazio Orokorrek hiriguneetan programatutako ekintzetan, ekintzen kudeaketa 50.000 biztanletik gorako udalerrietan Europar Batasuneko Funtsen Zuzendaritza Orokorri dagokio; 50.000 biztanletik beherako udalerrietara zuzendutako ekintzen kudeaketa, aldiz, Autonomia Erkidegoekin eta Tokiko Entitateekin Eskuduntzen Koordinazioaren Zuzendaritza Orokorri dagokio.

3. Espainiaren Elkartze Hitzarmena 2014-2020 eta hiri-garapen iraunkorreko estrategiak

3.1. Espainiaren Elkartze Hitzarmena 2014-2020

2014-2020 Programazio-aldian Europa 2020 Estrategiaren helburuak (hazkunde adimentsua, iraunkorra eta integratzailea) lortzeko Kohesio Politikaren Funtzen (EGEF, EGF, LGNF eta EIAF) estrategia eta lehentasunak adierazten dituen estatu mailako dokumentua da Elkartze Hitzarmena.


Eskualde Askotako eta Eskualdeko Programa Operatiboan datozen urteetarako europar finantzaketaren oinarriak ezartzen ditu Hitzarmen horrek. Horretarako, finantza-laguntzaren eta bultzadaren onuradunak izan daitezkeen jarduerak eta ekintza-ildoak identifikatzen ditu. Erregelamenduetan aurreikusitako 11 gai-helburuetatik 10 mobilizatzen ditu Hitzarmenak, eta horretarako aplikatzen duen ikuspegia EBren politika berriarekin bat dator, hazkunde iraunkorrean eta enplegua sortzean eragin handiagoa izan dezaketen inbertsioei lehentasuna ematen baitie.

Hiri-garapen iraunkorrarekin lotutako jarduerak barnean hartzen ditu EGEF Funtzak. Funtz honekin lotutako gai-helburuei dagokienez, txostenaren xedeetarako, 4. gai-helburua nabarmentzen da (karbono baxuan oinarritutako ekonomia batera igarotzeko inbertsioak). 3.377 milioi euro bideratu dira gai-helburu horretara, eraikuntzan aplikatutako energia-eraginkortasuneko jarduerak barnean hartuta. Energia-eraginkortasuneko jarduerak enplegu kualifikatuak sortuko dituztela eta berotegi-efektuko gasen isuriak murriztuko dituztela espero da.

Halaber, Programa Operatiboan edukia aztertzerakoan, 4. eta 5. kapituluetan zehazten den bezala, 6. gai-helburuaren (ingurumena zaintzea eta babestea eta baliabideen eraginkortasuna sustatzea) eta 9. gai-helburuaren (gizarteratzea eta pobrezia-aren aurkako borroka sustatzea) esparruan hirigunearen hobekuntzarako politikekin (6. helburua) eta gizarte-egoera ahula duten hiriguneak eta landa-guneak berronertzearekin (9. helburua) zerikusirik duten inbertsio-lehentasunak identifika daitezke.


Hazkunde Iraunkorreko Eskualde Askotako Programa Operatiboari EGEFk bideratzen dion aurrekontuko diru-hornidurak agerian uzten du ere hiri-garapen iraunkorraren bultzada hori. Funtz horrek kofinantzatzen dituen beste Programa nazional biek (ETE ekimena eta Hazkunde Adimentsua) baino diru kopuru handiagoa biltzen du aipatutako programa horrek, 5.526 milioi euro, hain zuzen; hau da, funtsaren kopuruaren ia % 30 (% 28,5).

EGEF Funtsaren diru-hornidura gai-helburuen arabera banakatuta (mila euro)



HELBURUAK	
01. Ikerkuntza, garapen teknologikoa eta berrikuntza sustatzea	02. ICTn erabilera eta kalitatea hobetzea eta eskura izatea erraztea
03. Nekazaritza, Arrantza eta Akuikultura sektoreetako ETEn lehiakortasuna hobetzea	04. karbonoaren erabilera baxuan oinarritutako ekonomiara igarotzen laguntzea sektore guztietan
05. klima-aldaketari egokitzea eta horri lotutako arriskuen prebentzioa eta kudeaketa sustatzea	06. Ingurumena babestea eta baliabideen eraginkortasuna sustatzea
07. Garraio iraunkorra sustatzea eta itoguneak ezabatzea funtsezko sare-azpiegiturretan	08. Enplegua sustatzea eta langileen mugikortasuna laguntzea
09. Gizarteratzea eta pobreziaaren aurkako borroka sustatzea	10. Hezkuntzan, gaitasunen garapenean eta etengabeko ikaskuntzan inbertitzea
11. Erakundeen gaitasuna eta administrazio publikoaren eraginkortasuna hobetzea	Laguntza teknikoa

EGEF Funtsaren diru-hornidura Programa Operatiboen arabera banakatuta (milioi euro)



3.2. Esku-hartze proposamenak Elkarte Hitzarmenaren eremuan

Gai-helburu bakoitzerako esku-hartze proposamen aukeraketa ezartzen du Hitzarmenak, eta hori da 2014-2020 Kohesio Politikarako jarduera-esparru koherentea ezartzeko abiapuntua.

A) Gai-helburuekin lotutako esku-hartze proposamenak

Hitzarmenean zehaztutako gai-helburuen artean, dokumentuaren hasierako analisi batean etxebizitza politikekin eta, bereziki, eraikinak birgaitzearekin eta hiriak berroneratzearekin lotutako zenbait esku-hartze proposamen ezartzen dira.

4. eta 5. kapituluetan zehazten den bezala, EGEF Programa Operatiboan edukiak barnean hartu ditu proposamen horiek inbertsio-lehentasunen eta helburu espezifikoaren bitartez.

<p>4. GAI-HELBURUA "karbonoaren erabilera baxuan oinarritutako ekonomiara igarotzen laguntzea sektore guztietan"</p> <p>Proposamena</p> <ul style="list-style-type: none"> Eraikinen energia-eraginkortasuna 	<p>6. GAI-HELBURUA "Ingurumena zaintzea eta babestea eta baliabideen eraginkortasuna sustatzea"</p> <p>Proposamena</p> <ul style="list-style-type: none"> Hirigunearen ingurune-hobekuntza 	<p>9. GAI-HELBURUA "Gizarteratzea eta pobrezia-aren aurkako borroka sustatzea"</p> <p>Proposamena</p> <ul style="list-style-type: none"> Hiriguneak eta landa-guneak fisikoki berroneratzea
---	---	--

4. gai-helburuak eraikinen energia-eraginkortasunarekin¹⁰ lotutako esku-hartze ildoak garatzen ditu. Gai-helburu horretan ezarritako esku-hartze proposamenak EGEFk kofinantza ditzake, baldin eta funtsak "Eraikinen energia-berrikuntzaren finantzaketa" (Financing the energy renovation of buildings with Cohesion Policy funding)¹¹ gidan ezarritako orientabideak jarraitzen dituzten proiektuei bideratzen badira.

¹⁰Eraikinen energia-eraginkortasunarekin lotutako estatu mailako esku-hartze ildoak Eraikuntza Sektoreko "Energia-birgaitzerako epe luzeko Espainiar Estrategian" oinarritutako planean ezartzen dira. Estrategia hori Sustapen Ministerioak egindakoa da, energia-eraginkortasunarekin lotutako Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2012ko urriaren 25eko 2012/27/EB Zuzentarauari jarraituz. Estrategia horrek 2020, 2030 eta 2050 helmugak aurreikusten ditu, eta higiezinaren parkearen eraginkortasuna hobetzea eta, aldi berean, zerbitzuen eta eraikuntzaren sektoreetan enplegua sortzea ahalbidetuko duten inbertsio handiak mobilizatzen bideratutako neurriak barnean hartzen ditu.

¹¹http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docgener/studies/pdf/financing_energy_renovation.pdf

“Eraikinen energia-berrikuntzaren finantzaketa” Gida

Europako Batzordearen gida tekniko horrek kudeaketa-agintariei jakinarazten die eraikinei eta energia-eraginkortasunari buruzko eskakizunak; energia-eraginkortasuneko programak egiteko orientabideak, praktika onen ikuspegiak eta ikerketa-kasuak jartzen ditu eskura; eta energia iraunkorreko proiektuak finantzatzeko erabil daitezkeen finantzaketa-mekanismo ezberdinak aztertzen ditu, eraikinen energia-berrikuntzan eskala handiko inbertsioak abian jartzeko eta sektore pribatura inbertsio handiagoak erakartzeko helburuarekin.

Kohesio Funtsen finantzaketa erabiliz, energia-eraginkortasuneko programa eraikinetan abian jartzeko urrats praktikoak ezartzen ditu gida horrek:

1. Programa Operatiboen helburuak eta lehentasunak ezartzea
2. Aukera daitezkeen eraikinak zehaztea
3. Birgaitze eta energia-aurrezpen maila zehaztea
4. Finantza-mekanismoen aukeraketa
5. Jarduera osagarrien aukeraketa
6. Programaren helburuen adierazlearen garapena
7. Aplikazio-prozesua zehaztea
8. Proiektuen aukeraketa
9. Banako proiektuaren errendimenduaren ikuskaritza

Energia-eraginkortasunaren esparruan dauden erabilera publikoko (Autonomiako eta tokiko administrazioen eraikinak, bereziki) eta pribatuko (etxebizitzak) eraikinak hobetzeko jarduerak lagunduko dira. Neurri horien finantzaketa aldeztu aurreko kontu-ikuskapena eta emaitzen jarraipena egitearen baldintzapean jarriko da, birgaitzearen emaitzatzat energia-ziurtagiria eskuratzera zuzendutako aldeztu aurretik finkatutako aurrezpen-helburuan oinarrituz. Elkartze Hitzarmenak ezartzen dituen eraikinen energia-eraginkortasuna hobetzeko neurriak ondorengo koadroan identifikatzen dira:

Eraikinen energia-eraginkortasuna hobetzeko neurriak

- Eraikinen ingurutzailer termikoa, 16,28 ktep/urteko aurrezpen-potentzialarekin, 2014-2020 aldirako Energia-eraginkortasuneko Ekintza-plan Nazionalaren arabera.
- Argiztapen-sistemak eta horien arauketa (11,09 ktep/urteko). Energia-eraginkortasun handiko ekipamendua, bereziki aire-girotzeari (banakoa, zentralizatua edo barrutikoa) eta etxekeko ur beroari 17,31 ktep/urteko aurrezpen-potentzialarekin, sistema elektrikoei (10,64 ktep/urteko) eta sistema informatikoei (2,37 ktep/urteko) dagokienez.
- Energia-eraginkortasun handiko ekipamendua (40 ktep/urteko baino gehiago).
- Energia-kontsumoaren neurketa eta kudeaketa eraginkorra barnean hartzen dituzten sistema domotikoak (9,3 ktep/urteko).
- Arkitektura bioklimatikoaren sustapena; bereziki, isuri-urriko eraikuntza-material iraunkorren erabilerekin eta fatxada eta teilatu berdeen (lorategiz hornituta) sustapena, eraginkortasun egiaztatua duten sistemak gisa.
- Dauden eraikinen birgaitzea energia-kalifikazio handiko helburuarekin.
- Berokuntza-sistema fosilen ordez, berokuntza-sistema eraginkorragoak eta ingurumena errespetatzen dutenak.

6. Gai-helburuak, “Ingurumena babestea eta baliabideen eraginkortasuna sustatzea”, hirigunearen ingurumen-hobekuntza planteatzen du, industrialde zaharren birgaitzearen eta kutsaduraren murrizketaren bitartez, eta baita natura-ondarearen babesera eta hobekuntzara bideratutako azpiegiturak finantzatzearen bitartez ere, erabilera publikoaren antolamendurako eta aipatutako ondarea behar den moduan baloratzean oinarritutako tokiko garapen-prozesuak bultzatzeko.

9. Gai-helburua, “Gizarteratzea eta pobrezia-aren aurkako borroka sustatzea”, haren esku-hartze proposamenen artean, enplegua eskuratzea erraztea ezartzen du, egoera ahulena duten landaguneak fisikoki, ekonomikoki eta sozialki plan integratuen bidez berroneratuz.

B) Hiri-garapen iraunkorra

Gutxienez funtsaren % 5 Hiri-garapen integratuko proiektuetara eta % 2 inguru hiri-garapen iraunkorreko proiektu singularretara bideratzera behartzen du EGEF erregelamenduak.

- Estatuko Administrazio Orokorra, EGEF erregelamenduaren arabera, kopuru osoaren % 5 hiri-garapen iraunkor integratuko proiektuetara bideratu du gutxienez; eta % 2,5 hiri-garapen iraunkorreko jarduera singularretara, 4. Gai-helburuaren eremuan.
- Honi gehituko zaizkio Autonomia Erkidegoek haien lurraldeetan ezar ditzaketenak.

Jarraian, Esparru-akordioan planteatzen diren jarduera mota ezberdinak laburtzen dira, Hiri-garapen Iraunkorarekin lotuta daudenak. Jarduera horiek bi mailatan antolatzen dira: Estatu mailan ezarri behar direnak eta Eskualde Askotako Programa Operatiboaren esparruan integratuta daudenak; eta Eskualdeko Programa Operatiboan esparruan Autonomia Erkidegoek garatutako jarduerak.

Hiri-garapen Iraunkorrean Jarduera Integratuak hirigune mugatuetan

Ezaugarriak

- URBAN Europar Batasuneko ekimenean parte hartu duten hirietan garatu diren antzekoak dira.
- Hirigunearen problematika bere osotasunean aurreikusten duen Hiri-garapen Iraunkor Integratuko Estrategia edo Plan Estrategikoa egotea eskatuko da.
- Estrategia edo Plan hori behar den moduan zehaztu beharko da, eragile ezberdinen parte-hartze eraginkorrerako eskakizunei erantzunez, eta horretarako ekintzen, neurrien eta lortu nahi diren emaitzen denbora-planifikazioa egin beharko da.
- Zeharkako izaera eduki behar du, beraz, aurreko hiru helburu estrategikoetatik gutxienez bati ekinez: dimentsio fisikoa eta ingurumenekoa hobetzea; dimentsio ekonomikoa eta lehiakortasuna hobetzea; gizarte-dimentsioa hobetzea.
- Izaera sozialeko, ekonomikoko eta ingurumeneko adierazleetan eta aldagaietan oinarritutako hirigunearen mugaketa dago.
- Bi tokiko erakundek edo gehiagok proiektuak batera aurkeztu ahalko dituzte, baldin eta eremu funtzional bateratua badago edo ekin beharreko arazoak antzekoak badira.

Programazioa

- Hiri-garapen Iraunkorreko jarduera integratu horiek Hazkunde Iraunkorreko Eskualde Askotako Programa Operatiboan 2014-2020 sartuko dira.

kudeaketa

- Europar Batasuneko Funtsen Zuzendaritza Orokorra izango da kudeaketa-agintaria.
- 50.000 biztanletik gorako udalerrietara zuzendutako ekintzen kudeaketa Europar Batasuneko Funtsen Zuzendaritza Orokorrari dagokio.
- 50.000 biztanletik beherako udalerrietara zuzendutako ekintzen kudeaketa Autonomia Erkidegoekin eta Tokiko Erakundeekin Eskuduntzak Koordinatzeko Zuzendaritza Orokorrari dagokio.

Hiri-garapen Iraunkorreko jarduera singularrak

Ezaugarriak

- Jarduera mota horrek 4. gai-helburuaren esparruaren lehentasunen eremuan dauden proiektu singularrak lagunduko ditu: Karbono urriko ekonomiara igarotzen laguntzea sektore guztietan.

Programazioa

- Hazkunde Iraunkorreko Eskualde Askotako Programa Operatiboan 2014-2020 sartuko dira.

kudeaketa

- Kudeaketa-agintaria Energia-dibertsifikaziorako eta aurrezpenerako Institutua izango da.

Hiri-garapena Autonomia Erkidegoetan

Programazioa

- Autonomia Erkidegoek jarduera integratuak eta singularrak egingo dituzte ere, haien Eskualdeko Programa Operatiboan esparruan.

Kudeaketa

- Hiri-ekintza horien kudeaketa Autonomia Erkidego bakoitzari dagokio.

Koordinazioa

- Estatuko Administrazio Okorrorak eta Autonomia Erkidegoek sustatutako ekintzen koordinazioa [Hiri-ekimenen sarearen](#) bitartez egingo da, hiri-garapenaren eremuko esperientziak koordinatuz eta 2014-2020 aldian eratuko den Hiri-garapeneko sare europarraren ildo berean lan eginez.

3.3. Hiri-garapeneko estrategia integralak Elkartze Hitzarmenaren esparruan

Espainiaren Elkartze Hitzarmenak 2014-2020 ezartzen duenez, hiri-garapen iraunkorreko jarduerari eskatuko zaie *estrategia integratua edo, dagokionean, plan estrategiko orokorra edukitzea, jarduera horiek definitzeko, garatzeko eta ebaluatzeko lurraldeko eta sektoreko erreferentzia-esparrutzat balio izango duena*. Halaber, Elkartze Hitzarmen horrek azpimarratzen du hiri-ekimenen Sare berriak bete behar duen eginkizuna, 2014-2020 aldian estrategia horiek ezartzeko eta kudeatzeko koordinazio- eta laguntza-mekanismo gisa.

Hiri-ekimenen Sarea Estatuan

Programazio-aldi berrian, koordinatzeko, bultzatzeko, orientatzeko, hiri-eragileak trebatzeko, kudeaketa laguntzeko eta hiri-gaian jarduerak ebaluatzeko mekanismoa da Estatuko Hiri-ekimenen Sarea. Jarduera horiek Egiturazko Funtsek finantzatzen dituzte eta praktika onak partekatzeko eta Europatik finantzaketa jasotzen duten hiri-proiektuen emaitzak zabaltzeko beharrezko tresna da. Bi dira bete behar dituen eginkizunak:

- Espainiarako Hiri-agenda definitzea, Europar Batasunaren printzipioekin eta orientabideekin bat etorriz.
- Izaera orokorreko oinarriak edo ildo estrategikoak idaztea, toki-eremuko estrategia integratuak garatzeko zein horiek jarraitzeko eta ebaluatzeko euskarria eta orientabidea izango direnak.

Hiri-ekimenen sare horren lehenengo ekarpena izan da Hiri-garapen Iraunkorreko jardueretan integratutako estrategiei buruzko lan-taldea abian jartzea 2014ko maiatzean; lan-talde horren eginkizuna zera da: Estatuko Tokiko Erakundeek finantzaketa eskuratzeko estrategia integratuak garatu ahal izateko, behar diren oinarriak eta orientabideak egitea eta eskaintzea.

2014-2020 aldian Hiri-garapen Iraunkorreko Estrategia Integratuak definitzeko orientabideak ezartzen dituen esparru-dokumentu interesgarria izan da lan-talde horren lehenengo emaitza. Orientabide horiek bereziki erabilgarriak izan daitezke tokiko eta eskualdeko agintarientzako, horrelako strategiak diseinatzeko eta ezartzeko orduan. Hori dela eta, dokumentu horren osagai garrantzitsuenak laburtuko dira.

Estrategiak diseinatzean abiapuntu gisa jarraitu behar diren bost funtsezko printzipiok osatzen dute dokumentuaren osagai garrantzitsuenetarikoa:

1. Printzipioa

Testuinguru zabalagoan integratuta ez dauden hiri-birgaitzerako jarduera edo proiektu espezifikoek haratago doazen hiri-garapen iraunkorreko estrategiak finantzatuko ditu EGEFk. Testuinguru horretan, diseinatuko den estrategiak bermatu behar du hirigunearen hiri-garapen iraunkorra eta integratua, eta Estatu kideek deialdien bitartez aukeratuko dituzte estrategia hoberenak dituzten eremuak.

2. Printzipioa

Estrategia iraunkorra izan behar du epe luzean; hortaz, hiriguneko baldintza sozialei, ekonomikoari eta ingurumenekoari erantzun beharko die.

3. Printzipioa

Behin estrategia balioztatua, proiektuak eta jarduerak zehaztu beharko dira, eta elkarrekin lotuta egon beharko dute estrategia berari erantzuteko xedearekin.

4. Printzipioa

EGEFk bultzatutako estrategia horien xedeetarako, hirigune kontzeptu malgua eta integratzailea eta mugaketa administratibo espezifikora lotuta ez dagoena lortzea izan behar da helburua. Horrela, hiri-agintariak izango dira strategiaren xedeetarako eremu bakoitzaren mugak zehaztuko dituztenak, eta muga horiek ezberdinak izan ahalko dira problematika bakoitzaren arabera.¹²

5. Printzipioa


Aurreko puntuaren ondorioz, hiri-agintari kontzeptua ez da nahitaez nahastu behar udal administrazioarekin; aldiz, agintari batek udalerrira baino zabalagoa den hiriguneko eragile nagusien koordinazioaren beharra eduki dezake.

Printzipio horietatik abiatuta, hiri-garapen iraunkorreko estrategia integratuei buruzko orientabideek estrategia horien garapenerako eskema aurkezten dute, finantzaketa-maila handiagoa eskuratzeko bereziki erabilgarriak izan daitezkeen zenbait osagarri operatibok eta espezifiko eraginda.

¹² Oro har, programazio-aldi berriko hiri-garapen iraunkor integratuan aurrera egiteko premia planteatzen dute orientabide horiek zenbait alderditan:

- Alde batetik, hirigune funtzionalerantz eta zentro anitzeko hiri-sistamarantz aurrera egiteko premia (hirien arteko estrategia kooperatiboak eta sareak laguntzen dituztenak)
- Eta bestetik, eremu beran dauden landa-hiri kooperazio forma berrietarantz aurrera egiteko premia, estrategiak abian jartzeko biztanleei eta baliabideei dagokienez masa kritiko nahikoa edukitzea ahalbidetuko dutenak.

Estrategia integratuaren garapeneren diagrama orientagarria



a. Arazoen/erronken identifikazioa

Estrategiaren xedea den hirigunearekin lotutako faktore kritikoak eta erronkak identifikatu behar dira alderdi anitzeko ikuspegitik. Edozelan ere, dokumentu honetan aipatutako Egiturazko Funtsek finantzatutako gai-helburuak abiapuntutzat hartuta egituratu behar da identifikazio hori, arreta berezia eskainiz hirigunearen hobekuntzari, hustutako industrialdeen hiri- berroneratzeari edo gizarteratzeari bultzadari.

b. Hirigunearen analisia ikuspegi integratutik

Estrategiak egituratuko dituen diagnostiko holistikoa egiteko alderdi eta aldagai nagusiak kontuan hartuko ditu analisi horrek, ondorengoak azpimarratuz:

- Ingurune Fisikoa, eraikitako parkearen eta haren birgaitze-premien azterketa azpimarratuz.
- Klima eta Ingurumena.
- Gizartea eta Demografia.
- Ekonomia eta Lehiakortasuna.
- Gobernantza-egiturak eta eskuduntza-esparrua.
- Dauden Planifikazio-tresnak: dauden tresnak analisian sartzearen egokitasuna azpimarratuz, hala nola: plan estrategikoak, Agenda 21. Alderdi honetan, diseinatuko den estrategia berriaren esparruan, strategiaren "kide" bakoitzak dituen tresnen koordinazioari ekiteko premia nabarmentzen da.

c. Hirigunearen egoeraren diagnostikoa eta jarduera-lehentasunen definizioa

Estrategia horiek ez dira oso sakonak izan behar ez eta jarduera-eremu guztiei ekin behar ere, egindako analisiaren arabera aldez aurretik azaldu diren erronkak eta lehentasunak aukeratu behar baizik.

Arazo horien arteko loturak aztertu behar ditu diagnostikoak aipatutako ikuspegi integraletik, eta horrek eskatuko du estrategia horiek bultzatu behar dituzten agintari eta eragile guztien parte-hartzea. Diagnostiko horiek egiteko ezinbestekoa da eragileek toki-mailako informazio sendoa eskura jar dezatela, Hiri eta Etxebizitza Behatokiek funtsezko eginkizuna dutela prozesu horietan.

d. Informazioa eta kontsulta

Herritarren eta eragile sozial, ekonomiko eta instituzionalen partaidetza hiri-garapen iraunkorreko estrategiak ezartzeko funtsezko baldintzetako bat izango da. Esparru horretan, informazioa eta parte hartuko duten eragileen ekarpenak eskuratzeko IKTBk eskaintzen duten aukera agerian dago.

e. Jarduera-esparruaren mugaketa

Aipatutako printzipioen arabera, jarduera-esparruaren mugaketa malgutasunez eta estrategiaren bitartez ekin behar zaien arazoetara egokitzuz ulertu behar da.

f. Jardueren programazioa eta jarraipen eta ebaluazio sistema

Azkenik, hiri-garapen iraunkorreko estrategia EGEFk edo EGfK kofinantzatutako ekintzetara soilik ez mugatzearen garrantzia azpimarratzen da, eta beste ekimenetatik eta finantzaketa-iturrietatik datozen baliabideak eta proiektuak barnean har ditzala ongi baloratzen da. Horrela, eragile guztien partaidetza eta finantza-plan sendoari babesa funtsezkoak dira estrategia arrakastaz abian jarri ahal izateko.

4. Hazkunde Iraunkorreko Eskualde Askotako Programa Operatiboa 2014-2020

4.1. Programaren irismena

EGEFk estatu mailan kofinantzatutako jardueren programazio-dokumentua da Hazkunde Iraunkorreko Eskualde Askotako Programa Operatiboa. Bertan, Europa 2020 Estrategiaren esparruan EBk bultzatzen duen hazkunde iraunkorreko eredua sustatzera bideratutako estrategia eta jarduerak zehazten dira.

Gauzak horrela, Europa 2020 Estrategiaren ildoan, hazkunde iraunkorraren helburua erdietsi behar da baliabideak eraginkortasunez erabiliko duen ekonomia sustatuz, ondorengo helburuak lortzeko asmoz:

- Sektorre lausoan (garraioa, eraikuntza eta zerbitzuak, batik bat) Berotegi-efektuko gasen (BEG) isuriak % 14 murriztea 2005eko mailekin alderatuta.
- Iturri berriztagarrien ekarpena energia-kontsumoaren % 20ra iristea.
- Energia-eraginkortasuna % 20 hobetzea.

Programa Operatiboa 4 lehentasunezko ardatzetan eta laguntza teknikoko ardatzan oinarritzen da. Lehenengo bi jarduera-ardatzek lotura handiagoa dute hiri-berroneratze politikiei eta txosten honen xedea den birgaitzeari emandako laguntzarekin.

HAZKUNDE IRAUNKORREKO ESKUALDE ASKOTAKO PROGRAMA OPERATIBOAREN LEHENTASUNEZKO ARDATZAK

4. ARDATZA (HIPO-1): erabilera baxuan oinarritutako ekonomia

12. ARDATZA (HIPO -2): Hiri-garapen integratua eta iraunkorra

6. ARDATZA (HIPO -3): Ur kalitatea

7. ARDATZA (HIPO -4): Garraio iraunkorra

14. ARDATZA (HIPO -5): Laguntza teknikoa

 Etxebizitza politikekin eta, bereziki, hirj-birgaitze eta berroneratze politikekin lotura

4.2. Inbertsio-lehentasunak Programaren esparruan

Programa Operatiboaren 4. eta 12. ardatzetan ezarritako inbertsio-lehentasunen eta helburu espezifikoaren analisia egin ondoren, hiri-berroneratze eta etxebizitzaren birgaitze politikekin lotura zuzenagoa daukaten eremuak identifikatu dira.

4. ardatza: Erabilera baxuan oinarritutako ekonomia

Etxebizitza-parkearen eta azpiegitura zein eraikin publikoen energia-birgaitzeko proiektuak laguntzea nabarmentzen da ardatz honetan planteatzen diren erronka ezberdinen artean. Energia-eraginkortasunaren hobekuntza hori dauden eraikinak berroneratzeko planen bitartez eta eraikin publikoetan eta pribatuetan energia berriztagarrien erabilpena gehituz lortu nahi da.

4. ardatz honetan dauden jarduerak proposatzeko abiapuntua den diagnostikoan azpimarratzen da estatu mailako etxebizitza-parkea 25.750.000 etxebizitzek osatzen dutela; horietatik % 56 1981. urtea baino lehen eraiki ziren. Testuinguru horretan, eraikinen energia-birgaitze plana abiaraztea egokia dirudi. Plan horrek, gainera, eragin onuragarria edukiko du eraikuntza sektorean enpleguaren berreskuratzeari dagokionez, Espainiako eraikuntza sektorearen energia-birgaitzerako epe luzeko Estrategiak ezartzen duen bezala (ikusi 3. Kapitulua).

12. ardatza: Hiri-garapen integratua eta iraunkorra

Ardatz honetan, hiri-garapen iraunkorreko neurri integratuak bultzatzen dira, gai-helburu anitzetan zeharkako eragina eduki dezaketenak eta ondorengo ezaugarriak dituen hiri-proiektuaren ereduari erantzuten diotenak:

- Hiri Adimentsua: 2. gai-helburuan ("IKTn erabilera eta kalitatea hobetzea eta eskurazitatea erraztea") sartutako jardueren bitartez, IKTk *smart city* kontzeptuan barneratuz.

- Hiri Iraunkorra: 4. gai-helburuan (“Karbonoaren erabilera baxuan oinarritutako ekonomiara igarotzen laguntzea sektore guztietan”) eta 6. gai-helburuan (“Ingurumena babestea eta baliabideen eraginkortasuna sustatzea”) sartutako jardueren bitartez, hirigunearen eta haren natura- eta kultura-ondarearen birgaitzea, energia-eraginkortasuna eta energia berriztagarriak, kutsaduraren murrizketa, hiri-mugikortasun iraunkorra eta hondakinen minimizazio, birziklatze eta energia-balorizazio eraginkorra sustatuz.
- Hiri integratzailea: 9. gai-helburuan (“Gizarteratzea eta pobrezia-aren aurkako borroka sustatzea”) sartutako jardueren bitartez, herritarren gizarteratzera bideratutako gizarte-, hezkuntza- eta osasun-azpiegiturak eta gizarte-egoera ahula duten hiriguneak eta landa-guneak fisikoki eta ekonomikoki berroneratzen laguntzea sustatuz.

Hurrengo orrialdean 4. eta 12. ardatzen inbertsio-lehentasanak eta helburu espezifikoak aurkezten dira, hiri-berroneratzearen eta birgaitzearen sustapenarekin zerikusi handiagoa dutenak identifikatuz (itzaldura arrosa dutenak); horiek lotuta daude energia-eraginkortasuna hobetzeko eta azpiegitura publikoetan eta pribatu-etan energia berriztagarriak erabiltzeko jarduerekin eta baita hiriguneak hobetzeko eta gizarte-egoera ahula duten hiriguneak eta landa-guneak fisikoki eta ekonomikoki berroneratzen laguntzeko jarduerekin ere.



HAZKUNDE IRAUNKORRA PO - 4. ETA 12. ARDATZEN LEHENTASUNEZKO ARDATZAK, GAI-HELBURUAK, INBERTSIO-LEHENTASUNA ETA HELBURU ESPEZIFIKOAK

LEHENTASUNE ZKO ARDATZA	GAI-HELBURUA	INBERTSIO-LEHENTASUNA	HELBURU ESPEZIFIKOAK
LA4. Karbonoaren erabilera baxuan oinarritutako ekonomiara igarotzen laguntzea sektore guztietan	04 - Karbonoaren erabilera baxuan oinarritutako ekonomiara igarotzen laguntzea sektore guztietan	4a –Iturri berriztagarrietan sorburua duen energiaren ekoizpena eta banaketa sustatzea	OE.4.1.1. Iturri berriztagarrietan sorburua duten energiaren kontsumoa areagotzea elektrizitatea ekoizteko,sistema elektrikoan sartzeko beharrezkoak diren garraio- eta banaketa-sareak barnean sartuta, 2011-2020 Energia Berriztagarrien Planarekin bat OE.4.1.2. Erabilera termikoetarako (bereziki biomasa, biogasa, garraiorako bioerregaiak) energia berriztagarrien ekarpena eta banaketa areagotzea, 2011-2020 Energia Berriztagarrien Planarekin bat
		4b –Energia-eraginkortasuna eta enpresetan energia berriztagarrien erabilera sustatzea	OE.4.2.1. Enpresen eta bereziki ETEn energia-eraginkortasunaren ebaluazioan eta hobekuntzan aurrera egitea
		4c –Azpiegitura publikoetan (eraikin publikoak barne) eta etxebizitzetan energia-eraginkortasunaren eta energia berriztagarrien erabilerean kudeaketa adimentsua laguntzea	OE.4.3.1. Energia-eraginkortasuna eta CO2 isurien murrizketa hobetzea eraikuntzan eta azpiegitura eta zerbitzu publikoetan OE. 4.3.2. Elektrizitatea sortzeko eta eraikuntza eta azpiegitura publikoetan erabilera termikoetarako energia berriztagarrien erabilera areagotzea, bereziki kontsumotik gertuko puntuetan eskala txikian sortzen lagunduz
		4e –Edozein lurraldetarako baina bereziki hiriguneetarako karbonoa murrizteko estrategiak sustatzea, hiri-mugikortasun multimodal iraunkorraren eta arintze-eragina duten moldatze-neurrien sustapena barnean sartuz	OE.4.5.1. Hiri-mugikortasun iraunkorra sustatzea: hiri-garraio garbia, garraio kolektiboa, landagune-hirigune lotura, bide-sarean hobekuntza, bizikleta-garraioa, oinezkoen garraioa, mugikortasun elektriko eta energia garbien hornidura-sistemak garatzea
		4f – karbono-isuri urriko teknologiaren erabilera berrikuntza sustatzea	OE.4.6.1. I+b sustatzea eta karbono-isuri urriko teknologiak erabiltzea
		02 - IKTn erabilera eta kalitatea hobetzea eta eskura izatea erraztea	2c –IKTn aplikazioa indartzea administrazio elektronikoan, ikaskuntza elektronikoan, inklusio elektronikoan, kultura elektronikoan eta osasun elektronikoan
12. ardatza (HIPO-2): Hiri-garapen integratua eta iraunkorra	04 - Karbonoaren erabilera baxuan oinarritutako ekonomiara igarotzen laguntzea sektore guztietan	4c –Energia-eraginkortasuna, energiaren kudeaketa adimentsua eta azpiegitura publikoetan (eraikin publikoak barne) eta etxebizitzetan energia berriztagarrien erabilera laguntzea	OE.4.3.1. Energia-eraginkortasuna eta CO2 isurien murrizketa hobetzea eraikuntzan eta azpiegitura eta zerbitzu publikoetan OE. 4.3.2. Elektrizitatea sortzeko eta eraikuntza eta azpiegitura publikoetan erabilera termikoetarako energia berriztagarrien erabilera areagotzea, bereziki kontsumotik gertuko puntuetan eskala txikian sortzen lagunduz
		4e -Edozein lurraldetarako baina bereziki hiriguneetarako karbonoa murrizteko estrategiak sustatzea, hiri-mugikortasun multimodal iraunkorraren eta arintze-eragina duten moldatze-neurrien sustapena barnean sartuz	OE.4.5.1. Hiri-mugikortasun iraunkorra sustatzea: hiri-garraio garbia, garraio kolektiboa, landagune-hirigune lotura, bide-sarean hobekuntza, bizikleta-garraioa, oinezkoen garraioa, mugikortasun elektriko eta energia garbien hornidura-sistemak garatzea
		6a. Hondakinen sektorean inbertsio-premiei erantzutea Batasunaren ingurumen-ondarea betetzeko	OE. 6.1.1. Hondakinen bereizketa, gaikako bilketa eta tratamendua garatzea, zikloa itxeko ekintzak sartuz, kudeaketa-planak zein azpiegiturretan egindako inbertsioak kontutan hartuz.
	06 - Ingurumena babestea eta baliabideen eraginkortasuna sustatzea	6B. Uraren sektorean inbertsio-premiei erantzutea Batasunaren ingurumen-ondarea betetzeko	OE. 6.2.2. Ura-erreserben kudeaketa eraginkorra eta integrala sustatzea, banaketan gerta daitezkeen galeren murrizketa eta gizakien ur-horniketa bermatzeko behar diren azpiegiturak egiteko ekintzak sartuz
		6c –Natura- eta kultura-ondarea zaintzea, babestea, sustatzea eta garatzea	OE.6.3.1. Kultura-ondarearen babesa, sustapena eta garapena bultzatzea OE.6.3.2. Naturaguneen babesa, garapena eta sustapena, bereziki interes turistikoa dutenak
		6e –Hainbat ekintza: Hirigunea hobetzeko, hiriak indartzeko, industrialde zaharrak (birmoldaketa-guneak barne) birgaitzeko eta deskontaminatzeko, kutsadura atmosferikoa murriztea eta zarata murrizteko neurriak sustatzeko	OE.6.5.1. Hirigunea hobetzea, industrialde zaharrak birgaitzea eta lurzorua kutsadura,kutsadura atmosferikoa eta zarata-kutsadura murriztea
09- Gizarteratzea eta pobrezia aurrerako borroka sustatzea	9b –Gizarte-egoera ahula duten hiriguneetako eta landa-guneetako komunitateak fisikoki, ekonomikoki eta sozialki berronertzeko laguntza ematea	OE. 9.2.1. Gizarte-egoera ahula duten hiriguneetako eta landa-guneetako komunitateak fisikoki, ekonomikoki eta sozialki berronertzeko laguntza ematea	

Etxebizitza politikekin eta, bereziki, hiri-birgaitze eta berronertzeko politikekin lotura

4.3. Programan aurreikusitako jardueren ezaugarritzea

Hiri-birgaitzeari eta berroneratzeari lotuta dauden Eskualde Askotako Programa Operatiboaren 4. eta 12. ardatzen gai-helburuetan proposatutako kudeaketaren arduradunei, jarduera motari, hartzaileei, finantzaketa-sistemei eta ekintza orientagarriei buruzko informazioa jasotzen du atal honek.

Jarraian, 4. ardatzan dauden jardueren kudeaketarako osagai operatibo nagusiak aurkeztuko dira. Azpimarragarria da kudeaketa Energia Dibertsifikatu eta Aurrezteko Erakundeari (IDAE) dagokiola eta jarduera finantzagarriak Estatuko etxebizitza-parkearen energia-eraginkortasuna hobetzeko proiektuetara bideratuta daudela.

4. ardatza: Erabilera baxuan oinarritutako ekonomia.

- **Kudeaketaren arduraduna.** Energia Dibertsifikatu eta Aurrezteko Erakundeak (IDAE) bultzatuko ditu proposatutako jarduerak.
- **Jarduera-mota.**
 - Energia-eraginkortasunaren hobekuntza, azpiegitura publikoetan zein etxebizitzetan.
 - Energia berriztagarrien erabilera udal azpiegitura, eraikin eta zerbitzu publikoetan.
- **Hartzaileak.**
 - Eraikin, instalazio eta azpiegitura publikoetara zuzendutako programen hartzaileak Estatuko Administrazio Orokorraren, Udalen, instituzio publikoen, enpresa publikoen edo udal-esparruan egindako zerbitzuen emakidadunak diren enpresa pribatuen eta energia-zerbitzuetako enpresen eraikin eta azpiegitura publikoen titularrak dira.
 - Etxebizitza erabilera duten eraikinetara zuzendutako programen hartzaileak etxebizitzaren jabeak dira (pertsona fisikoak, jabeen erkidegoak eta mankomunitateak lurralde nazional osoan).
- **Finantzaketa-mekanismoak.** Proposatutako ekintzak itzuliko ez diren diru-laguntzen bitartez antolatuko dira.

Ondorengo taulan 4. ardatz honekin lotutako helburu espezifikoek barnean hartzen dituzten jarduera guztiak jasotzen dira. Beraz, bertan hauteman daitezke etxebizitza politikekin lotuta dauden ekintzak, eta energia-politikekin lotutakoak ere.

4. ARDATZA. GAI-HELBURU BAKOITZEKO JARDUERAK

HELBURU ESPEZIFIKOA. Energia-eraginkortasuna hobetzea eraikuntzan eta azpiegitura eta zerbitzu publikoetan.

Eraikin, instalazio eta azpiegitura publikoetara zuzendutako programa

Autonomia Erkidego ezberdinetan kokatutako eraikinetan eta azpiegituretan dauden eta energia kontsumitzen duten ekipo eta instalazioak berritzeko proiektuak identifikatzea eta egiaztatzea izango da programaren xedea. Orientabide gisa eta ez mugatzaile gisa, Programa Operatiboak barnean hartzen dituen jarduera batzuk dira:

a) Edozein erabilerako dauden eraikinak:

- Inguratzaile termikoaren hobekuntza
- Instalazio termikoen hobekuntza
- Argiztapen-instalazioen hobekuntza
- Energia-kalifikazio altuko (A edo B) eraikinen birgaitzea
- Eraginkortasun handiko kogenerazioa
- Igogailuen eta dauden beste garraio-sistemen instalazioa
- Sistema adimentsuen instalazioa
- Energia-eraginkortasunaren hobekuntza datu-tratamenduko zentroetan
- Energia-eraginkortasunaren hobekuntza instalazio elektrikoetan

b) Kanpoko argiteriaren energia-eraginkortasunaren hobekuntza (LED, argi-fluxuaren erregulazio-sistemak, etab.)

c) Biztanleentzako ur-horniduraren instalazioen energia-eraginkortasunaren hobekuntza: ura arazteko, hornitzeko eta gezatzeko instalazioak.

Etxebizitza gisa erabili ohi diren eraikinetara zuzendutako programa

Dauden eraikinen inguratzaile termikoaren, instalazio termikoen eta argiztapen-instalazioen energia-eraginkortasuna hobetzeko inbertsioak egiten dituzten etxebizitzaren titullarrak izango dira programaren hartzaileak. . Orientabide gisa eta ez mugatzaile gisa, Programa Operatiboak barnean hartzen dituen jarduera batzuk dira:

- Inguratzaile termikoaren hobekuntza (fatxaden/teilatuen, leihoen eta abarren berritzea barne)
- Instalazio termikoen hobekuntza (galdara-aretoen, banakako galdararen,... berritzea barne)
- Argiztapen-instalazioen hobekuntza
- Energia-kalifikazio altuko (A edo B) eraikinen birgaitzea
- Eraginkortasun handiko kogenerazioa
- Eraginkortasun handiko igogailuen eta dauden beste garraio-sistemen instalazioa
- Sistema adimentsuen instalazioa

HELBURU ESPEZIFIKOA. Elektrizitatea sortzeko eta eraikuntza eta azpiegitura publikoetan erabilera termikoetarako energia berriztagarrien erabilera areagotzea, bereziki kontsumotik gertuko puntuetan eskala txikian sortzen lagunduz.

Azpiegituren, eraikinen eta udal zerbitzu publikoen esparruan ondorengo ekipamendua bultzatzea:

- Autokontsumo elektrikorako potentzia txikiko haize-instalazioak.
- Eguzki-instalazio fotovoltaikoak, autokontsumorako elektrizitatea sortzeko.
- Eguzki-instalazio termikoak, beroa edo hotza aplikatzeko.
- Biomasaren erabilera termikorako instalazioak.
- Biogasa transformatzeko edo eta erabilera termikoa emateko instalazioak, garraio-sektorean aplikatzeko edo sareetan txertatzeko beharrezkoak direnak barne.
- CDR eta CSR erabilera termikorako instalazioak (CDR eta CSR eduki berriztagarria gutxienez % 80koa izango da).
- Fluido termikoen Banaketa-sareak, hozteko instalazioak eta gasak arazteko ekipoak, baldin eta biomasaren, biogasaren, CDR eta edo CSR erabilera termikoarekin lotuta badaude (CDR eta CSR eduki berriztagarria gutxienez % 80koa izango da).
- Energia geometrikoa aplikazio termikoetarako aprobetxatzeko instalazioak.

Hiri-garapen Iraunkorraren 12. ardatzak Programa Operatibo osoaren zeharkako ikuspegia aurkezten du eta Europar Batasuneko Funtsen Zuzendaritza Orokorra kudeatzen du. Ardatz horren onuradun nagusiak tokiko erakundeak dira. Ardatz honek barnean hartzen dituen jarduerak Estatuko hiriguneen premiei erantzun integrala eskaintzen diete, garapen ekonomikoari, gizarteratzeari, IKTn sustapenari eta etxebizitza-esparruari lotutako beste ekintza batzuei, hala nola, hirigunearen hobekuntzari eta energia-eraginkortasunari lotutako zenbait ekintzen bitartez.

12. Ardatza: Hiri-garapen integratua eta iraunkorra

- **Kudeaketaren arduraduna.** Europar Batasuneko Funtsen Zuzendaritza orokorra izango da kudeaketa-agintaria.
 - 50.000 biztanletik gorako udalerrietara zuzendutako ekintzen kudeaketa Europar Batasuneko Funtsen Zuzendaritza Orokorra dagokio.
 - 50.000 biztanletik beherako udalerrietara zuzendutako ekintzen kudeaketa Autonomia Erkidegoekin eta Tokiko Erakundeekin Eskuduntzak Koordinatzeko Zuzendaritza Orokorra dagokio.
- **Jarduera-motak.**
 - Energia-eraginkortasunaren hobekuntza azpiegitura publikoetan
 - Energia berriztagarrien erabilera azpiegitura publikoetan
 - Hirigunearen hobekuntza
 - Hiriguneen berroneratze fisikoa
- **Hartzaileak.**
 - Udal handiak (50.000 biztanle edo gehiago dutenak edo kopuru hori erdiesten ez duten probintziako hiriburuak).
 - Udal txikiak eta ertainak (20.000-50.000 biztanle artean, eta ez probintziako hiriburuak).
 - Elkarrekin batuta gutxienez 20.000 biztanle biltzen dituzten hainbat udalerrri hartzen dituzten proiektuak dituzten Probintzietako Aldundiak.
- **Finantzaketa-mekanismoak.** Proposatutako ekintzak itzuliko ez diren diru-laguntzen bitartez antolatuko dira.

Ondorengo taulan etxebizitza politikekin lotura handiagoa duten helburu espezifikoek barnean hartzen dituzten jarduera guztiak jasotzen dira. Hala ere, helburu bakoitza osatzen duten jarduera guztiak adierazten dira.

12. ARDATZA. GAI-HELBURU BAKOITZEKO JARDUERAK

HELBURU ESPEZIFIKOA. Energia-eraginkortasuna hobetzea eraikuntzan eta azpiegitura eta zerbitzu publikoetan.

- Eraikinen energia-birgaitzea, eraikin publikoak barne, ondorengo eremuetan jarduerak ezarriz, besteak beste: inguratzaile termikoan, berokuntza-, girotze- eta etxeko ur beroaren eta argiztapen-instalazioetan, besteak beste.
- Energia-zerbitzuetako enpresak laguntzea, jarduerak ezar ditzaten eraikuntza sektorean, bereziki auditoretza energetikoak eginez eta hortik sortzen diren beste jarduera batzuk.
- Kanpoko udal argi-sistemaren energia-eraginkortasuna hobetzeko plana abian jartzea, kontsumo txikiko luminariak (LED, adibidez) edo argi-fluxua erregulatzeko sistema ipiniz.
- Kontsumorik gabeko edo ia gabeko eraikinak erakusteko proiektuak.

HELBURU ESPEZIFIKOA. Elektrizitatea sortzeko eta eraikuntza eta azpiegitura publikoetan erabilera termikoetarako energia berriztagarrien erabilera areagotzea, bereziki kontsumotik gertuko puntuetan eskala txikian sortzen lagunduz.

- Azpiegitura publikoetan jarduerak eguzki-energia termikoaren esparruan, berokuntzako eta hozte hiri-sareetan aplikatuz.
- Biomasa, biogasa eta hiri-hondakin solidoak erabiltzea (CDR eta CSR), erabilera termikoetarako edo autokontsumorako Elektrizitatea sortzeko azpiegitura eta zerbitzu publikoetan erabiltzeko.
- Hondakindegien zigitatzea eta araztegi-takto lohiak aprobetxatzea biogasa sortzeko.
- Energia aerotermikoaren eta geotermikoaren aplikazioak azpiegitura eta zerbitzu publikoetan, geotermia sakona barne.
- Autokontsumorako erabilitako potentzia txikiko haize-instalazioak eraikin publikoetan.
- Olio erabiliak biltzeko sistemak garatzea biodiesel ekoizteko.

HELBURU ESPEZIFIKOA. Natura- eta kultura-ondarea zaintzea, babestea, sustatzea eta garatzea.

- Hiriguneko ondare historiko, arkitektoniko eta kulturala birgaitzeko programak

HELBURU ESPEZIFIKOA. Naturaguneeen babesa, garapena eta sustapena, bereziki interes turistikoa dutenak.

- Lurzoruak berreskuratzea, eraikuntzak jasandako krisiaren ondorioz bukatu gabeko bizitegi-guneetan berdeguneak sortzeko.

HELBURU ESPEZIFIKOA. Hirigunea hobetzea, industrialde zaharrak birgaitzea eta lurzoruaren kutsadura, kutsadura atmosferikoa eta zarata-kutsadura murriztea.

- Hiri-kutsadura akustikoa murriztea.
 - Neurketa-estazioak eta isolamendu akustikoko jarduerak zarata-iturrietatik hurbileko hiriguneetan, adibidez, aireportuak, autobidaiak edo trenbideak.
- Hiri-eremuko lurzoru kutsatuak deskontaminatzea eta berreskuratzea.
 - Hustutako hirigune industrialen birgaitzea
 - Hirigune publikoaren berpiztea.

HELBURU ESPEZIFIKOA. Gizarte-egoera ahula duten hiriguneetako eta landa-guneetako komunitateak fisikoki, ekonomikoki eta sozialki berroneratzeko laguntza ematea.

- Egoera ahula duten auzoen berroneratze ekonomikoa eta soziala ekoizpen- eta merkataritza-ehuna birgaituz, adinekoentzako eguneko zentroak sortuz, egoitzak, jantoki sozialak, liburutegiak, pertsona desgaituentzako eta drogazaleentzako gizarte-arretako eta lanean txertatzeko zentroak, kultura-zentroak, talde ahulentzako informazio eta orientazio bulegoak (komunitate ijitoa, pertsona desgaituak, egoera ahula duten emakumeak, ...), prestakuntza-zentroak, enpresa-mintegiak eta ekintzaileentzako orientazio-zentroak, eta abar.
- Egoera ahula duten auzoetan kokatutako etxebizitzaren birgaitze integraleko proiektuak: fatxaden garbiketa, igogailuen instalazioa, eremu komunaren birgaitzea, eta abar.
- Hustutako guneen moldaketa ekimen komunitarioak eta gizarte-zerbitzuak bultzatzen dituzten kolektiboentzako eta negozioak ireki nahi dituzten pertsonentzako.


4.4. Programa Operatiboaren finantza-estrategia¹³

Programa Operatibo horretan, “Karbonoaren erabilera baxuan oinarritutako ekonomia” 4. ardatzak 2.095,8 milioi euroko finantza-ekarpena jasotzen du EGEFtik, hau da, Programaren aurrekontu osoaren % 37,9. Esku-hartzearen gaiaren arabera aurrekontu-banakapena ondorengoa izango litzateke:

- % 40 energia berriztagarrietara bideratuko da, bai erabilera termikoetarako bai erabilera elektrikoetarako.
- Gainerako % 60 eraikuntza sektorean, industria-enpresetan eta argiteria publikoan energia-eraginkortasuna hobetzera bideratutako jarduerak finantzatzera zuzenduko da.

Bestalde, “Hiri-garapen integratua eta iraunkorra” 12. ardatzaren esparruan aurrekontua 997,1 milioi eurokoa da, hau da, Programaren funts guztien % 18,1.

Finantza-banakapena lehentasunezko ardatzaren arabera




Ardatz bakoitzerako aurrekontuaren banakapena ezartzen da, esku-hartze kategoría mota batzuen arabera. Kategoría horien barruan, batzuk etxebizitza politikekin eta, bereziki, hiri-birgaitze eta berroneratzearekin lotuta daude (baina ez dute eremu horiekin lotutako kontzeptuak barnean hartu beharrik).

- 013. Azpiegitura publikoen, erakusketa proiektuen eta laguntza-neurrien energia-eraginkortasuna berroneratzea.
- 014. Dauden higiezin, erakusketa proiektuen eta laguntza-neurrien energia-eraginkortasuna berroneratzea.
- 089. Industrialdeen eta lur kutsatuen birgaitzea.
- 094. Kulturaren eta ondare publikoaren aktiboen babesa, garapena eta sustapena.


¹³ Finantzaketari buruzko informazioa laguntzen kopuruei buruz ari da (ez guztizko kostu hautagarriari buruz); hau da, EGEFk kofinantzatutako kontusailari buruz.

4. ardatzari esleitutako aurrekontuaren kasuan, etxebizitza politikekin lotutako esku-hartze kategorietara bideratutako aurrekontu-saila Programa Operatiboaren Funts guztien % 25 baino pixka bat altuagoa da. Adierazgarria da higiezinaren energia-eraginkortasunaren berroneratzera bideratutako finantzaketaren portzentajezko pisua. Hiri-garapen Iraunkorraren ardatzari dagokionez, aurrekontu-sailak portzentajezko pisu bera hartzen du, industrialdeen eta lur kutsatuen birgaitzera bideratutako portzentajea altuagoa izanik.

Finantza-banakapena esku-hartze kategoriaren arabera – 4 ARDATZA



Finantza-banakapena esku-hartze kategoriaren arabera – 12 ARDATZA



5. EGEF 2014 2020 Eskualdeko programa Operatiboan Analisi konparatzailea

2014-2020 programazio-aldi berrian kofinantzatu ahal izango diren hiri-berroneratze eta birgaitze eskualdeko politiken irismen potentzialari hurbiltzeko xedearekin, Autonomia Erkidego ezberdinetako EGEF Eskualdeko Programa Operatiboak aztertu dira.

Kapitulu honetan egiten den analisiari ekin aurretik, azpimarratu behar da txosten hau egiteko unean soilik onetsi direla behin betikoz ondorengo Autonomia Erkidegoetako Programa Operatiboak: Errioxa, Gaztela Mantxa, Nafarroako Foru Erkidegoa, Kantabria, Katalunia, Galizia eta Euskadi.

Argitaratutako gainerako Programa Operatiboak onesteko prozesuan daude oraindik; hortaz, atariko bertsioan daude eskuragarri (zirriborroa), eta bertan jasotzen diren jarduera-proposamenek aldaketak jasan ditzakete Europako Batzordeak¹⁴ adierazten dituen oharren arabera.

Egindako lanak Programa Operatibo bakoitzaren xehetasunak aztertzea eskatu du eta, ondorioz, programa horien egitura propioaren esparruan kokatzen diren helburu espezifikoak identifikatu dira.:

1. Ardatz bakoitzean, etxebizitza politikekin lotutako edukia duten inbertsio-lehentasunak eta helburu espezifikoak identifikatzea. Aurreko kapituluan adierazi den bezala, etxebizitza politikekin nolabaiteko lotura duten ardatzak aztertu dira (zehazki, 4., 6., 9. eta 12. ardatza)¹⁵, zehazki ardatz horiek barnean hartzen dituzten programak. Analisi hori 5.1 atalean aurkezten da eskualdeko programa Operatibo guztietarako¹⁶.
2. Jarraian, Programa Operatibo batzuk aukeratu dira eta etxebizitza politika horiekin lotutako helburu espezifikoek barnean hartzen dituzten jarduera ezberdinak aztertu dira sakonki, ondorengo ikuspegietatik: etxebizitzaren birgaitzea, eraikinen birgaitzea, energia-eraginkortasuna, eta abar.

¹⁴ Asturiaseko eta Andaluziako programa Operatiboak ezin izan dira azterketan sartu, ezin izan baita eskuratu zirriborrora ez Europar Batasuneko Funtsen Zuzendaritza orokorraren webgunean ez eta eskualdeetako webguneetan ere.

¹⁵ Programa Operatiboak egituratzen dira *bottom down* (goitik behera) ikuspegitik, ondorengo mailetan: Lehentasuneko Ardatza, Gai-helburua, Inbertsio-lehentasuna eta helburu espezifikoak.

¹⁶ Eskualde Askotako Programa Operatiboan analisiaren kasuan gertatu den bezala, azpimarratu behar da 4. Ardatza dela etxebizitza politikekin lotutako jarduera gehiago eta aurrekontu-homidura handiagoa potentzialki bilduko dituen. Edozelan ere, Ardatz horrek aurreikusten du ere beste motatako jarduerak, azpiegitura publikoekin eta energia berriztagarriekin lotuta daudenak.

Beraz, ikerketa-eremuaren zabaltasuna ikusita, lehenengo atal batean (5.1) baterako panoramika eskaintzea erabaki da, eta horrek Programa Operatibo EGEF 2014-2020 guztiak berrikustea ekarri du. 5.2 atalean analisiaren eduki xehean sakondu da, arreta 4. Eta 6. ardatzetan jarriz aurrekontu handiena dutenak baitira.

5.1. EGEF 2014-2020 Programa Operatiboan panoramika orokorra eta etxebizitza politikarekin lotutako inbertsio-lehentasunak eta helburu espezifikoak barnean sartzea

Analisiaren abiapuntu gisa, interesgarritzat jo da Espainiako eskualdeen banaketa eskualde motaren arabera aurkeztea, 2014-2020 aldiko Egiturazko Funtzen kofinantzaketa-portzentajeak kontutan hartuz.

Autonomia Erkidegoen sailkapenaren garrantzia hiru eskualde moten arabera adierazgarria da, bakoitzari kofinantzaketa-portzentaje ezberdina baitagokio eta, beraz, horren arabera, eskualdeko agintariek egin behar duten inbertsio-ahalegina handiagoa edo txikiagoa izango da:

- Gutxi garatutako eskualdeek (Extremadura) eta ultraperiferikoek (Kanariak) inbertsio bakoitzaren edo Egiturazko Funtsek kofinantzatutako gastuaren guztizkoaren % 85 erdietsi dezaken kofinantzaketa-tasa eskura dezakete.
- Trantsizioan dauden eskualdeak: inbertsio eta kofinantzatutako gastu guztien % 80 erdietsi dezake kofinantzaketa-tasak.
- Eskualde garatuagoak (EAE barne): kofinantzaketa-tasa askoz ere txikiagoa da, ez baitu 2014-2020 programazio aldi berriko programetako jarduerak eskatzen dituzten inbertsioen eta gastuen % 50 gainditzen.

AA.EE.-en sailkapena 2014-2020ko hesio politikaren hiru eskualde moten aranera

ESKUALDE GARATUENAK	Aragoi Asturias Balearrak Ceuta Kantabria Katalunia Gaztela eta Leon Valentziar Erkidegoa Galizia Errioxa Madril Nafarroako Foru Erkidegoa Euskadi
TRANTSIZIOAN DAUDEN ESKUALDEAK	Andaluzia Kanariak Gaztela-Mantxa Murtzia Melilla
GUTXI GARATUAK	Extremadura

Edozelan ere, azpimarratu behar da kofinantzaketa-tasa horiek gora egin dezaketela proiektu zehatz batzuetan horien baldintzen arabera. Horrela, adibidez, tasa horiek 10 portzentajezko puntu gehitzen dituzte EGEFk lagundutako jardueretan finantzaketa-tresna berritzaileak aplikatzen diren kasuetan.

2014-2020 aldiko EGEF Eskualdeko Programa Operatiboen zeharkako analisi espezifikoari dagokionez, konfirma daiteke autonomia-gobernu guztiek hiri-birgaitzearekin eta berroneratzearekin lotutako esku-hartzeak bultzatuko dituztela programa horien bitartez. Hala ere, esku-hartze horien tipologiak eta horiekin lotutako aurrekontu-ahalegina ezberdina da.

Horrela, horien azterketa sakonak ondorengo intereseko osagaiak azpimarratzen ditu, etxebizitza politikaren eremuan garatutako programa horien esparruan kofinantzatutako proiektuek eta jarduerak har dezaten garrantzia neurtzeko orduan:

- **Azpiegitura publikoetan eta pribatuetan energia-eraginkortasuna bultzatzearekin lotutako jarduerak**

EGEF Eskualdeko Programa Operatibo guztiek 2014-2020 aldirako inbertsio-lehentasan gisa zera ezarri dute 4. ardatzaren barnean: karbonoaren erabilera baxuan oinarritutako ekonomiara igarotzen laguntzea sektore guztietan, azpiegitura publikoetan (eraikin publikoak barne) eta etxebizitzetan energia-eraginkortasunaren eta energia berriztagarrien erabilerearen kudeaketa adimentsua laguntzea.

Era osagarrian, programa guztiek ezartzen dute, inbertsio-lehentasan horren barnean, helburu espezifiko bezala, energia-eraginkortasuna eta CO₂ isurien murrizketa hobetzea eraikuntzan eta azpiegitura eta zerbitzu publikoetan.

Hala ere, soilik Programa Operatibo batzuk aurreikusten dituzte jarduerak "Elektrizitatea sortzeko eta eraikuntza eta azpiegitura publikoetan erabilera termikoetarako energia berriztagarrien erabilera areagotzea, bereziki kontsumotik gertuko puntuetan eskala txikian sortzen lagunduz" bilatzen duen helburu espezifikoaren eremuan.

Horrela, eskualde garatuenean artean, soilik hartzen dituzte haien Eskualdeko Programa Operatiboen barnean Aragoi eta Madril; trantsizioan dauden eskualdeen artean, aldiz, soilik Kanariak, Murtziak eta Melillak aurreikusten dituzte horrelako jarduerak.

Azkenik, azpimarratu behar da Eskualdeko Programa Operatibo batzuk (Nafarroako Foru Erkidegoa, Ceuta eta Kanariak, besteak beste) 4. Ardatzan aurreikusitako jarduera guztiak biltzen dituzte eraikinetako eta etxebizitzetako energia-eraginkortasuna eta azpiegituretan energia berriztatzaileak erabiltzea bilatzen duten gai-helburuetan.

- **Jarduera-lehentasanak hiri-hobekuntzaren eremuan**

Etxebizitza politikarekin lotutako beste helburu espezifiko bat hirigunearen hobetzearekin, industrialde zaharren birgaitzearekin eta lurzoruaren kutsadura, kutsadura atmosferikoa eta zarata murriztearekin lotuta dago. Helburu hori 6. ardatzaren barnean dago: "Ingurumena babestea eta zaintzea eta baliabideen eraginkortasuna sustatzea".

Helburu espezifiko hori ondorengo 2014-2020 EGEF Eskualdeko Programa Operatiboek bultzatzen dute soilik:

- Eskualde garatuenen artean: Katalunia, Aragoi, Madril eta Ceuta.
- Trantsizioan dauden artean: Kanariak eta Murtzia.
- Extremaduran (gutxi garatutako eskualdea).

- **Hiri-garapen Iraunkorra ardatz espezifiko gisa integratzea Eskualdeko programa Operatiboetan**

Aurreko kapituluan adierazi den bezala, Estatuko Administrazio Orokorrak Hiri-garapeneko helburu espezifiko bultzatzen du hiri-estrategia integratua garatzen duten proiektuetan, eta baita proiektu singularretan ere, eskualde guztietan dihardun Garapen Iraunkorreko Eskualde Askotako Programa Operatiboaren bitartez.

Eskualdeko Programa Operatibo gehienek, aldiz, ez dute gaur egun aurreikusten hiri-garapen iraunkorreko ekintza integratuak ezartzea. Madrilgo Autonomia Erkidegoak eta Ceuta eta Melilla hiri autonomoek soilik definitu dute Hiri-garapeneko Ardatza, haien Programa Operatiboaren barnean.

LEHENTASUNEZKO ARDATZAK, GAI-HELBURUAK, INBERTSIO-LEHENTASUNA ETA HELBURU ESPEZIFIKOAK – ESKUALDE-ALDERAKETA (I) ¹⁷

LEHENTASUNEZKO ARDATZA	GAI-HELBURUA	INBERTSIO-LEHENTASUNA	HELBURU ESPEZIFIKOAK	EUSKADI	NAFARROA	KATALUNIA	ARAGOI	MADRIL	VALENTZIA R ERK.	KANTABRIA	GALIZIA		
EP4. Karbonoaren erabilera baxuan oinarritutako ekonomiara igarotzen laguntzea sektore guztietan	04 - karbonoaren erabilera baxuan oinarritutako ekonomiara igarotzen laguntzea sektore guztietan	4a - Iturri berriztagarrietan sorburua duen energiaren ekoizpena eta banaketa sustatzea	OE.4.1.1. Iturri berriztagarrietan sorburua duen energiaren kontsumoa areagotzea elektrizitate ekoizteko, sistema elektrikoan sartzeko beharrezkoak diren garraio- eta banaketa-sareak barnean sartuta, 2011-2020 Energia Berriztagarrien Planarekin bat OE.4.1.2. Erabilera termikoetarako (bereziki biomasa, biogasa, garraiorako bioerregaiak) energia berriztagarrien ekarpena eta banaketa areagotzea, 2011-2020 Energia Berriztagarrien Planarekin bat										
		4b - Energia-eraginkortasuna eta enpresetan energia berriztagarrien erabilera sustatzea	OE.4.2.1. Enpresen eta bereziki ETEn energia-eraginkortasunaren ebaluazioan eta hobekuntzan aurrera egitea OE.4.2.2. Enpresetan, bereziki ETEn, energia berriztagarriak erabiltzea sustatzea										
		4c - Azpiegitura publikoetan (eraikin publikoak barne) eta etxebizitzetako energia-eraginkortasunaren eta energia berriztagarrien erabileraren kudeaketa adimentsua laguntzea	OE.4.3.1. Energia-eraginkortasuna eta CO2 isurien murrizketa hobetzea eraikuntzan eta azpiegitura eta zerbitzu publikoetan OE.4.3.2. Elektrizitatea sortzeko eta eraikuntza eta azpiegitura publikoetan erabilera termikoetarako energia berriztagarrien erabilera areagotzea, bereziki kontsumotik gertuko puntuetan eskala txikian sortzen lagunduz										
		4d -Erdi- eta behe-tentsioko sareetan banaketa-sistema adimendunak garatzea eta aplikatzea	OE.4.4.2. "Smart grids" edo sare adimentsuetara bideratutako banaketa-sareak hobetzea IKT sistemetan inbertituz										
		4e -Edozein lurraldetarako baina bereziki hiriguneetarako karbono murrizteko estrategiak sustatzea, hiri-mugikortasun multimodal iraunkorren eta arintze-eragina duten moldatze-neurrien sustapena barnean sartuz	OE.4.5.1. Hiri-mugikortasun iraunkorra sustatzea: hiri-garraio garbia, garraio kolektiboa, landagune-hirigune lotura, bide-sarean hobekuntza, bizikleta-garraioa, oinezkoen garraioa, mugikortasun elektriko eta energia garbien hornidura-sistemak garatzea										
		6a. Hondakinen sektorean inbertsio-premiei erantzutea Batasunaren ingurumen-ondarea betetzeko	OE.6.1.1. Hondakinen bereizketa, gaikako bilketa eta tratamendua garatzea, zikloa itxeko ekintzak sartuz, kudeaketa-planak zein azpiegiturretan egindako inbertsioak kontutan hartuz.										
		6B. Uraren sektorean inbertsio-premiei erantzutea Batasunaren ingurumen-ondarea betetzeko	OE.6.2.1. Uraren Esparru-zuzentarauaren eskakizunak burutzea, hondakin urak saneatzeko, arazteko eta berrerabiltzeko azpiegiturretan eta ur-kalitatearen hobekuntzan inbertituz OE.6.2.2. Ura-erreserben kudeaketa eraginkorra eta integrala sustatzea, banaketan gerta daitezkeen galeren murrizketa eta gizakien ur-horniketa bermatzeko behar diren azpiegiturak egiteko ekintzak sartuz										
EP06. Ingurumena babestea eta baliabideen eraginkortasuna sustatzea	06 - Ingurumena babestea eta baliabideen eraginkortasuna sustatzea	6c -Natura- eta kultura-ondarea zaintzea, babestea, sustatzea eta garatzea	OE.6.3.1. Kultura-ondarearen babesa, sustapena eta garapena bultzatzea OE.6.3.2. Naturaguneen babesa, garapena eta sustapena, bereziki interes turistikoak dutena OE.6.3.3. Azpiegitura berdeak sustatzea, garraio aldizkakoa edozein lurraldetan eta isuri urriko jardueretara dibertsifikatzea lagunduko dutenak										
		6d –Biodibertsitatearen eta lurzoruen babesa eta berrezarpena eta ekosistemen zerbitzuen sustapena, baita Natura 2000eko azpiegitura ekologikoen bitartez ere	OE.6.4.1. Lurzoruen, naturaguneen eta horien biodibertsitatearen kudeaketa, babesa eta mantenua sustatzea, bereziki babestuta daudenen kasuan, higadura, gazitze, basamortutze, baso-soiltze arazoak eta lurzoruen materia organikoaren maila txikiarekin lotutako arazoak leuntzeko neurriak barnean hartuz										
		6e -Hainbat ekintza: Hirigunea hobetzeko, hiriak indartzeko, industrialde zaharrak (birmoldaketa-guneak barne) birgaitzeko eta deskontaminatzeko, kutsadura atmosferikoa murriztea eta zarata murrizteko neurriak sustatzeko	OE.6.5.1. Hirigunea hobetzea, industrialde zaharrak birgaitzea eta lurzoruen kutsadura, kutsadura atmosferikoa eta zarata-kutsadura murriztea										
		6G. Industria-eredutik baliabideen erabilera eraginkorreko ekonomiarantz igarotzen laguntzea, eta baita hazkunde ekologikoa, berrikuntza ekologikoa ingurumen-eraginaren kudeaketa sektore publikoan eta pribatuan laguntzea	OE.6.7.1. Industria-eredutik baliabideen erabilera eraginkorreko eta hazkunde ekologikoa sustatzen duen ekonomiarantz igarotzen laguntzea										
		9a – Osasun- eta gizarte-azpiegiturretan inbertitzea, garatzen, ezberdintasunak murrizten eta gizarteratzean lagunduko dutenak	OE.9.1.1. Tokiko eta nazioko garapena lagundu eta osasun-ezberdintasunak murriztuko duen gizarte- eta osasun-azpiegiturretan inbertitzea eta erakunde-zerbitzuetaik tokiko zerbitzuetara igarotzea laguntzea										
		9b –Gizarte-egoera ahula duten hiriguneetako eta landa-guneetako komunitateak fisikoki, ekonomikoki eta sozialki berroneratzeko laguntza ematea	OE.9.2.1. Gizarte-egoera ahula duten hiriguneetako eta landa-guneetako komunitateak fisikoki, ekonomikoki eta sozialki berroneratzeko laguntza ematea										

Etxebizitza politikekin lotura eta, bereziki, hirien birgaitzearekin eta berroneratzearekin lotura

¹⁷ Ez da 12. Ardatza barnean hartu (Hiri-garapen iraunkorra), Autonomia Erkidego bik soilik sartu baitute haien Programa Operatiboetan.

LEHENTASUNEZKO ARDATZAK, GAI-HELBURUAK, INBERTSIO-LEHENTASUNA ETA HELBURU ESPEZIFIKOAK – ESKUALDE-ALDERAKETA (II) ¹⁸

LEHENTASUNEZKO ARDATZA	GAI-HELBURUA	INBERTSIO-LEHENTASUNA	HELBURU ESPEZIFIKOAK	ERROKA	GAZTELA ETALEON	BALEARRAK	CEJUTA	KANARIAK	GAZTELA-MANTXA	MURTZA	MELLA	EXTREMADURA		
EP4. Karbonoaren erabilera baxuan oinarritutako ekonomiara igarotzen laguntzea sektore guztietan	04 - karbonoaren erabilera baxuan oinarritutako ekonomiara igarotzen laguntzea sektore guztietan	4a - Iturri berriztagarrietan sorburua duen energiaren ekoizpena eta banaketa sustatzea	OE.4.1.1. Iturri berriztagarrietan sorburua duen energiaren kontsumoa areagotzea elektrizitatea ekoizteko, sistema elektrikoan sartzeko beharrezkoak diren garraio- eta banaketa-sareak barnean sartuta, 2011-2020 Energia Berriztagarrien Planarekin bat											
			OE.4.1.2. Erabilera termikoetarako (bereziki biomasa, biogasa, garraioko bioerregaiak) energia berriztagarrien ekarpena eta banaketa areagotzea, 2011-2020 Energia Berriztagarrien Planarekin bat											
		4b - Energia-eraginkortasuna eta enpresetan energia berriztagarrien erabilera sustatzea	OE.4.2.1. Enpresen eta bereziki ETEn energia-eraginkortasunaren ebaluazioan eta hobekuntzan aurrera egitea											
			OE.4.2.2. Enpresetan, bereziki ETEn, energia berriztagarriak erabiltzea sustatzea											
		4c - Azpiegitura publikoetan (eraikin publikoak barne) eta etxebizitzetan energia-eraginkortasunaren eta energia berriztagarrien erabilaren kudeaketa adimentsua laguntzea	OE.4.3.1. Energia-eraginkortasuna eta CO2 isurien murrizketa hobetzea eraikuntzan eta azpiegitura eta zerbitzu publikoetan											
			OE.4.3.2. Elektrizitatea sortzeko eta eraikuntza eta azpiegitura publikoetan erabilera termikoetarako energia berriztagarrien erabilera areagotzea, bereziki kontsumotik gertuko puntuetan eskala txikian sortzen lagunduz											
4d -Erdi- eta behe-tentsioko sareetan banaketa-sistema adimentsunak garatzea eta aplikatzea	OE.4.4.2. "Smart grids" edo sare adimentsuetara bideratutako banaketa-sareak hobetzea IKT sistemetan inbertituz													
4e -Edozein lurraldetarako baina bereziki hiriguneetarako karbono murrizteko estrategiak sustatzea, hiri-mugikortasun multimodal iraunkorren eta arintze-eragina duten moldatze-neurrien sustapena barnean sartuz	OE.4.5.1. Hiri-mugikortasun iraunkorra sustatzea: hiri-garria garbia, garraio kolektiboa, landagune-hirigune lotura, bide-sarean hobekuntza, bizikleta-garraioa, oinezkoen garraioa, mugikortasun elektriko eta energia garbien hornidura-sistemak garatzea													
EP06. Ingurumena babestea eta baliabideen eraginkortasuna sustatzea	06 - Ingurumena babestea eta baliabideen eraginkortasuna sustatzea	6a. Hondakinen sektorean inbertsio-premiei erantzutea Batasunaren ingurumen-ondarea betetzeko	OE.6.1.1. Hondakinen bereizketa, gaikako bilketa eta tratamendua garatzea, zikloa itxeko ekintzak sartuz, kudeaketa-planak zein azpiegiturretan egindako inbertsioak kontutan hartuz.											
		6B. Uraren sektorean inbertsio-premiei erantzutea Batasunaren ingurumen-ondarea betetzeko	OE.6.2.1. Uraren Esparru-zuzentarauaren eskakizunak burutzea, hondakin urak saneatzeko, arazteko eta berrerabiltzeko azpiegiturretan eta ur-kalitatearen hobekuntzan inbertituz											
			OE.6.2.2. Ura-erreserben kudeaketa eraginkorra eta integrala sustatzea, banaketan gerta daitezkeen galeren murrizketa eta gizakien ur-horniketa bermatzeko behar diren azpiegiturak egiteko ekintzak sartuz											
		6c -Natura- eta kultura-ondarea zaintzea, babestea, sustatzea eta garatzea	OE.6.3.1. Kultura-ondarearen babesa, sustapena eta garapena bultzatzea											
			OE.6.3.2. Naturaguneen babesa, garapena eta sustapena, bereziki interes turistikoak dutena											
		6d -Biodibertsitatearen eta lurzoruen babesa eta berrezarpena eta ekosistemen zerbitzuen sustapena, baita Natura 2000eko azpiegitura ekologikoen bitartez ere	OE.6.3.3. Azpiegitura berdeak sustatzea, garraio alternatiboa edozein lurraldetan eta isuri urriko jardueretara dibertsifikatzea lagunduko dutenak											
			OE.6.4.1. Lurzoruen, naturaguneen eta horien biodibertsitatearen kudeaketa, babesa eta mantenua sustatzea, bereziki babestuta daudenen kasuan, higadura, gazitze, basamortutze, baso-soiltze arazoak eta lurzoruen materia organikoaren maila txikiarekin lotutako arazoak leuntzeko neurriak barnean hartuz											
6e -Hainbat ekintza: Hirigunea hobetzeko, hiriak indartzeko, industrialde zaharrak (birmoldaketa-guneak barne) birgaitzeko eta deskontaminatzeko, kutsadura atmosferikoa murrizteko eta zarata murrizteko neurriak sustatzeko	OE.6.5.1. Hirigunea hobetzea, industrialde zaharrak birgaitzea eta lurzoruen kutsadura, kutsadura atmosferikoa eta zarata-kutsadura murriztea													
6G. Industria-eredutik baliabideen erabilera eraginkorreko ekonomiarantz igarotzen laguntzea, eta baita hazkunde ekologikoa, berrikuntza ekologikoa ingurumen-eraginaren kudeaketa sektore publikoan eta pribatuan laguntzea	OE.6.7.1. Industria-eredutik baliabideen erabilera eraginkorreko eta hazkunde ekologikoa sustatzen duen ekonomiarantz igarotzen laguntzea													
E.P.9. Gizarteratzea eta pobreziaen aurkako borroka sustatzea	09- Gizarteratzea eta pobreziaen aurkako borroka sustatzea	9a - Osasun- eta gizarte-azpiegiturretan inbertitzea, garatzen, ezberdintasunak murrizten eta gizarteratzean lagunduko dutenak	OE.9.1.1. Tokiko eta nazioko garapena lagundu eta osasun-ezberdintasunak murriztuko duen gizarte- eta osasun-azpiegiturretan inbertitzea eta erakunde-zerbitzuetatik tokiko zerbitzuetara igarotzea laguntzea											
		9b -Gizarte-egoera ahula duten hiriguneetako eta landa-guneetako komunitateak fisikoki, ekonomikoki eta sozialki berronertzeko laguntza ematea	OE.9.2.1. Gizarte-egoera ahula duten hiriguneetako eta landa-guneetako komunitateak fisikoki, ekonomikoki eta sozialki berronertzeko laguntza ematea											

Etxebizitza politikekin lotura eta, bereziki, hirien birgaitzearekin eta berronertzearekin lotura

¹⁸ Ez da 12. Ardatza barnean hartu (Hiri-garapen iraunkorra), Autonomia Erkidego bik soilik sartu baitute haien Programa Operatiboetan.

HIRI-GARAPENeko LEHENTASUNEZKO ARDATZA BARNEAN HARTZEN DUTEN ESKUALDEKO POetan SARTUTAKO INBERTSIO-LEHENTASUNAK ETA HELBURU ESPEZIFIKOAK

LEHENTASUNEZKO ARDATZA	GAI-HELBURUA	INBERTSIO-LEHENTASUNA	HELBURU ESPEZIFIKOA	MADRIL	CEUTA	MELILLA
12. ardatza (HIPO-2): Hiri-garapen integratua eta iraunkorra	02 - IKTn erabilera eta kalitatea hobetzea eta eskura izatea erraztea	2c - IKTn aplikazioa indartzea administrazio elektronikoan, ikaskuntza elektronikoan, inklusio elektronikoan, kultura elektronikoan eta osasun elektronikoan	OE.2.3.1. Alfabetatze digitala, e-ikaskuntza, e-gizarteratzea, e-osasuna eta esparru horietan aplikatzeko konponbide digitalak sustatzea OE.2.3.2. e-gobernua, e-kultura eta konfiantza indartzea esparru digitalean			
	04 -Karbonoaren erabilera baxuan oinarritutako ekonomiara igarotzen laguntzea sektore guztietan	4c - Azpiegitura publikoetan (eraikin publikoak barne) eta etxebizitzetan energia-eraginkortasunaren eta energia berriztagarrien erabilerean kudeaketa adimentsua laguntzea	OE.4.3.1. Energia-eraginkortasuna eta CO2 isurien murrizketa hobetzea eraikuntzan eta azpiegitura eta zerbitzu publikoetan OE. 4.3.2. Elektrizitatea sortzeko eta eraikuntza eta azpiegitura publikoetan erabilera termikoetarako energia berriztagarrien erabilera areagotzea, bereziki kontsumotik gertuko puntuetan eskala txikian sortzen lagunduz			
		4e -Edozein lurraldetarako baina bereziki hiriguneetarako karbonoa murrizteko estrategiak sustatzea, hiri-mugikortasun multimodal iraunkorraren eta arintze-eragina duten moldatze-neurrien sustapena barnean sartuz	OE.4.5.1. Hiri-mugikortasun iraunkorra sustatzea: hiri-garraio garbia, garraio kolektiboa, landagune-hirigune lotura, bide-sarean hobekuntza, bizikleta-garraioa, oinezkoen garraioa, mugikortasun elektriko eta energia garbien hornidura-sistemak garatzea			
	06 - Ingurumena babestea eta baliabideen eraginkortasuna sustatzea	6a. Hondakinen sektorean inbertsio-premiei erantzutea Batasunaren ingurumen-ondarea betetzeko	OE. 6.1.1. Hondakinen bereizketa, gaikako bilketa eta tratamendua garatzea, zikloa itxeko ekintzak sartuz, kudeaketa-planak zein azpiegiturretan egindako inbertsioak kontutan hartuz.			
		6b. Uraren sektorean inbertsio-premiei erantzutea Batasunaren ingurumen-ondarea betetzeko	OE. 6.2.2. Ura-erreserben kudeaketa eraginkorra eta integrala sustatzea, banaketan gerta daitezkeen galeren murrizketa eta gizakien ur-horniketa bermatzeko behar diren azpiegiturak egiteko ekintzak sartuz			
		6c - Natura- eta kultura-ondarea zaintzea, babestea, sustatzea eta garatzea	OE.6.3.1. Kultura-ondarearen babesa, sustapena eta garapena bultzatzea OE.6.3.2 Naturaguneen babesa, garapena eta sustapena, bereziki interes turistikoa dutenak			
			6d – Biodibertsitatearen eta lurzoruen babesa eta berrezarpena eta ekosistemen zerbitzuen sustapena, baita Natura 2000eko azpiegitura ekologikoen bitartez ere	OE.6.3.3. Azpiegitura berdeak sustatzea, garraio alternatiboa edozein lurraldetan eta isuri urriko jardueretara dibertsifikatzea lagunduko dutenak OE.6.4.1. Lurzoruaren, naturaguneen eta horien biodibertsitatearen kudeaketa, babesa eta mantenua sustatzea, bereziki babestuta daudenen kasuan, higadura, gazitze, basamortutze, baso-soiltze arazoak eta lurzoruen materia organikoaren maila txikiarekin lotutako arazoak leuntzeko neurriak barnean hartuz		
		6e -Hainbat ekintza: Hirigunea hobetzeko, hiriak indartzeko, industrialde zaharrak (birmoldaketa-guneak barne) birgaitzeko eta deskontaminatzeko, kutsadura atmosferikoa murriztea eta zarata murrizteko neurriak sustatzeko	OE.6.5.1. Hirigunea hobetzea, industrialde zaharrak birgaitzea eta lurzoruen kutsadura,kutsadura atmosferikoa eta zarata-kutsadura murriztea			
	08 Enplegua sustatzea eta langileen mugikortasuna laguntzea	8c – Enplegu-zerbitzu publikoetara bideratutako azpiegiturretan inbertitzea	OE. 8.3. 1. Enplegu-zerbitzu publikoetara bideratutako azpiegiturretan inbertitzea o			
	09- Gizarteratzea eta pobreziaaren aurkako borroka sustatzea	9a – Osasun- eta gizarte-azpiegiturretan inbertitzea, nazioko, eskualdeko eta tokiko garapena eta osasun-ezberdintasunak murrizten lagunduko dutenak eta gizarteratzea sustatuko dutenak, gizarte-, kultura- eta jolas-zerbitzueta irismena hobetuz eta erakunde-zerbitzuetatik tokiko zerbitzuetara igaroz	OE. 9.1. 1. Tokiko eta nazioko garapena lagundu eta osasun-ezberdintasunak murriztuko duen gizarte- eta osasun-azpiegiturretan inbertitzea eta erakunde-zerbitzuetatik tokiko zerbitzuetara igarotzea laguntzea			
		9b – Osasun- eta gizarte-azpiegiturretan inbertitzea, garatzen, ezberdintasunak murrizten eta gizarteratzean lagunduko dutenak	OE. 9.2. 1. Gizarte-egoera ahula duten hiriguneetako eta landa-guneetako komunitateak fisikoki, ekonomikoki eta sozialki berroneratzeko laguntza ematea			

Etxebizitza politikekin lotura eta, bereziki, hirien birgaitzearekin eta berroneratzearekin lotura

5.2. 2014-2020 EGEF Eskualdeko Programa Operatibo aukeratu batzuetan sartutako etxebizitza esparruko jardueren analisi konparatzailea

Atal honetan, 2014-2020 EGEF Eskualdeko Programa Operatibo guztiekin egindako aurreko analisia sakondu nahi da, aukeratutako programa batzuetan arreta jarriz.

Aukeratutako programa Operatibo horiek barnean hartutako jardueren identifikazioan aurrera egin nahi da. Jarduera horiek, energia-eraginkortasunarekin, hiri-berroneratzearekin eta eraikin eta etxebizitza parkearen birgaitzearekin lotuta dauden heinean, autonomiako eta tokiko gobernuen politikak bultzatzeko eta indartzeko aukera ematen dute.

Aukeratutako Programa Operatiboak dira hiri-berroneratzearekin eta birgaitzearekin lotutako helburu estrategiko aniztasun handiena erakusten dutenak. Baita, baliabide ekonomikoei dagokionez, hasierako aurrekontuko diru-hornidura handiena dute ere, hiri-berroneratzearekin eta birgaitzearekin (4. eta 6. Ardatzak) lotutako inbertsio-lehentasunak barnean hartzen dituzten gai-helburuetan. Irizpide hori jarraituz, ondorengo Autonomia Erkidegoek sustatutako 2014-2020 EGEF Eskualdeko Programa Operatiboak aukeratu dira:

- Euskadi
- Nafarroa
- Katalunia
- Aragoi
- Errioxa
- Melilla
- Extremadura

A) Finantzaketa-estrategiaren eskualdeko alderaketa¹⁹

Aukeratutako programetako lehentasuneko ardatzek barnean hartutako esku-hartze kategoriak aztertu dira (hurrengo orrialdeko laburpen-koadroan zehazten dira). Kategoriatu horiek jardueren tipifikazio kodifikatua egin dute, etxebizitza politikarekin zer ikusirik duten horien garrantzi erlatiboa aztertzea ahalbidetuz. Hauek dira identifikatu diren jarduerak:

- 4. Ardatzan: birgaitzearekin eta energia-eraginkortasunarekin lotutako esku-hartzeak ondorengoak dira:
 - 013. Azpiegitura publikoen, erakusketa proiektuen eta laguntza-neurrien energia-eraginkortasunaren berritzea.
 - 014. Dauden higiezin, erakusketa proiektuen eta laguntza-neurrien energia-eraginkortasunaren berritzea.
- 6. Ardatzan: hirigunearen hobekuntzarekin lotutako esku-hartzea ondorengoa da:
 - 089. Industrialdeen eta lur kutsatuen birgaitzea.

¹⁹ Finantzaketari buruzko informazioari dagokionez, laguntzen zenbatekoak ari dira kontuan hartzen (eta ez guztizko kostu hautagarria); hau da, EGEFk kofinantzatutako kontusaila.

FINANTZAKETA-ESTRATEGIAREN BANAKETA ESKU-HARTZE KATEGORIEN ARABERA – ESKUALDE-ALDERAKETA

ARDATZA	ESKU-HARTZE ESPARRUEN TAMAINARI BURUZKO KODIGOAK	EUSKADI	NAFARROA	ARAGOI	ERRIOXA	KATALUNIA	MELILLA	EXTREMADURA	
4	005 Elektrizitatea (biltegitratze eta transmisioa)	--	--		--	2.523.278,00		--	
	009. Energia berriztagarriak: haizea	--	--	1.125.000,00	--	--		--	
	010. Energia berriztagarriak: eguzkia	--	--	1.125.000,00	--	--	4.848.735,56	--	
	011. Energia berriztagarriak: biomasa	368.906,00	--	1.125.000,00	--	10.232.884,00		8.557.106,00	
	012. Bestelako energia berriztagarriak	18.840.000,00	--	1.125.000,00	--	3.794.819,00		4.519.450,00	
	013. Azpiegitura publikoen, erakusketa proiektuen eta laguntza-neurrien energia-eraginkortasunaren berritzea. ²⁰	737.811,00	--	9.001.962,00	2.992.501,00	65.572.848,00	1.573.045,81	9.117.843,00	
	014. Dauden higiezinak, erakusketa proiektuen eta laguntza-neurrien energia-eraginkortasunaren berritzea	11.180.311,00	4.173.589,00	2.110.000,00	249.999,00	1.502.611,00		4.257.349,00	
	043. Hiri-garraioaren azpiegitura eta sustapena	922.264,00	--	--	--	38.688.713,00		--	
	044. Garraio-sistema adimentsuak	3.377.023,00	--	--	--	2.139.388,00		--	
	069. Ekoizpen-prozesu ekologikoak laguntzea eta baliabideen erabilera eraginkorra ETEn		--	--	500.001,00	3.005.222,00		6.571.952,00	
	090. Bizikleta-erreak eta bideak	10.283.804,00	--	--	--	1.502.612,00	3.468.350,88		
	EP04 GUZTIRA	45.710.119,00	4.173.589,00	15.611.962,00	3.742.501,00	128.962.375,00	9.679.107,00	33.023.700,00	
6	017. Etxeko hondakin kudeaketa						647.807,21	5.554.584,00	
	020. Kontsumo uraren hornikuntza (erauzketa-, tratamendu-, biltegitratze- eta Banaketa-azpiegiturak)						8.507.355,64	10.735.663,00	
	021. Hondakin-uren tratamendua						6.427.290,00		
	022. Hondakin-uren tratamendua						8.615.377,88	33.200.052,00	
	069. Ekoizpen-prozesu ekologikoak laguntzea eta baliabideen erabilera eraginkorra ETEn	2.753.750,00							
	083. Airearen kalitatearen neurketa							2.100.000	
	084. Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuak								
	085. Biodibertsitatearen babesa eta indartzea, naturaren azpiegitura ekologikoaren babesa	5.125.650,00				1.441.342,00	27.893.581,00	272372,42	
	086. Natura 2000 guneen babesa, leheneratzea eta erabilera iraunkorra				8.250.000,00				
	089. Industrialdeen eta lur kutsatuen birgaitzea	--			16.150.000,00		12.865.591,00		5.800.000,00
	091. Naturaguneeen potentzial turistikoaren garapena eta sustapena					287.752,00		598.012,23	
	092. Turismo publikoaren aktiboaren babesa, garapena eta sustapena						51.616.803,00		
094. Kulturaren eta ondare publikoaren babesa, garapena eta sustapena				3.603.520,00		39.595.522,00	1.106.711,62	3.355.130,00	
EP06 GUZTIRA	7.879.400,00			28.003.520,00	1.729.094,00	131.971.497,00	26.174.926,99	60.745.429,00	

 Etxebizitza politikekin lotura eta, bereziki, hirien birgaitzearekin eta berroneratzearekin lotura

²⁰ Eremu horretan sartutako jardueren analisi xehetik ondorioztatzen da Programa Operatibo guztiek barnean hartzen dituztela energia-eraginkortasunaren hobekuntzarekin eta eraikin publikoen birgaitzearekin lotutako jarduerak eta baita beste azpiegiturretara bideratutako eraginkortasuna hobetzeko jarduerak ere.

Aurreko datuen analisiak erakusten du EAEko 2014-2020 EGEF Eskualdeko Programa Operatiboa gainerako programen gainetik kokatzen dela 014 jarduera-eremuan aurreikusitako aurrekontuko diru-hornidurari dagokionez (“Dauden higiezin, erakusketa proiektuen eta laguntza-neurrien energia-eraginkortasunaren berritzea”), 2014-2020 aldirako aurreikusitako 11 milioi euro gaindituz.

Gainerako Eskualdeko Programa Operatiboetan, aldiz, 014 eremu horretarako aurreikusitako diru-hornidura askoz ere txikiagoa da, Nafarroako Foru Erkidegoaren eta Extremaduraren EGEF Eskualdeko Programa Operatiboetan ezik, zeintzuk 4 milioi euro gainditzen baitituzte.

013 jarduera-eremuan (“Azpiegitura publikoen, erakusketa proiektuen eta laguntza-neurrien energia-eraginkortasunaren berritzea”) programatutako aurrekontuen xehetasun mailak ez du lagatzen etxebizitza politikarekin zerikusi zuzena duten jardueretara bideratuko diren kontusailak bereiztea. Edozelan ere, azpimarratu behar da Kataluniako EGEF Eskualdeko Programa Operatiboak eremu horretan aurreikusten duen aurrekontua nahiko altua dela: 65 milioi euro 2014-2020 aldian, hain zuzen ere.

Gainerako Eskualdeko Programa Operatiboetan 013 eremu horretan aurreikusitako diru-hornidurak askoz ere txikiagoak dira; hala ere, aipagarriak dira Extremadurako eta Aragoiko EGEF Eskualdeko Programa Operatiboek aurreikusitako zenbatekoak: 9 milioi euro baino gehiago aldi osorako.

Azkenik, 6. Ardatzaren esparruan, 089 eremuan (“Industrialdeen eta lur kutsatuen birgaitzea”), soilik hiru programa Operatiboek aurreikusita dituzte jarduerak egitea:

- Kataluniako 2014-2020 EGEF Eskualdeko Programa Operatiboa: 12,8 milioi euro 6. Ardatzan.
- Aragoiko 2014-2020 EGEF Eskualdeko Programa Operatiboa: 16,1 milioi euro 6. Ardatzan.
- Extremadurako 2014-2020 EGEF Eskualdeko Programa Operatiboa: 5,8 milioi euro 6. Ardatzan.

Programa Operatibo ezberdinen analisiak agerian uzten du **programek ez dituztela finantza-tresna berritzaileak behar adina sartzen** (itzuliko diren diru-laguntzak, finantza-tresnak²¹ edo primak) 2014-2020 programazio-aldi berriak eskaintzen dituen orientabideen eta pizgarrien arabera.

Eskualdeko Programa Operatiboetatik hiru dira (Euskadi, Katalunia eta Nafarroa) jarduerak laguntzeko finantza-tresnak sar ditzaketenak, baina ez dute gehiagorik zehazten.

Euskadiren kasuan, hasiera batean, 4.3.1 helburu espezifikoaren esparruan (“Energia-eraginkortasuna eta CO2 isurien murrizketa hobetzea eraikuntzan eta azpiegitura eta zerbitzu publikoetan”) aurreikusita dagoen etxebizitzako energia-eraginkortasunerako laguntza osoaren % 75 bideratzen du EGEFrako Programa Operatiboak, eta jarduera horiek diru-laguntzen bitartez lagunduko dira. Gainerako % 25 “finantza-tresnen bitarteko laguntza: maileguak eta baliokideak” kategorian, berroneratze sakonak²² pizten dituzten jardueretara bideratzen da. 2016an Estatu mailan egingo den analisi-prozesuaren ondoren (*Ex ante* ebaluazioa Finantza-tresnen egokitasuna aztertzeko), Europar Batasuneko laguntzaren esleipena eta horren kudeaketa Finantza-tresnen bitartez egiteko aukera aztertuko da.

Kataluniaren kasu espezifikoan, hiri-garapen iraunkorreko estrategietan finantza-tresnak erabiltzeko aukera aurreikusten da ondorengo eremuetan:

- Energia berriztagarriak - biomasa.
- Hiri-birgaitzea eta smartcities.
- Birgaitzea eta destinazio turistikoaren hobekuntza.

Mailegu eta abal bezalako finantza-tresnak antolatzea eta funtsen kudeaketa Europako Inbertsio Bankuaren esku uztea (EIB) aztertuko da. 2007-2013 programazio-aldian finantza-tresnen kudeaketan lortutako esperientzia kontuan hartuko dute Programaren agintariek, bereziki aipatutako programazio-aldian esparru arautzaile argi baten gabezia eta segurtasun juridikorik eza direla eta, finantza-tresnen kudeaketan eta kontrolean hautemandako hutsuneei ekidinez eta aurre eginez.

²¹ Finantza-tresnen bitarteko laguntza: arrisku-kapitala, partizipazioak edo baliokideak; Finantza-tresnen bitarteko laguntza: maileguak edo baliokideak; Finantza-tresnen bitarteko laguntza: abalak edo baliokideak; Finantza-tresnen bitarteko laguntza: interes-hobariak, berme-komisioak, laguntza teknikoak edo prima baliokideak.

²² Eskaera termikoa murrizteko eraikinen inguratzailan jardutea eta ekoizpen termikoko instalazioetan jardutea kontsumo termikoa murrizteko eta, horrela, energia-ziurtagiri C eskuratzea gutxienez; energia-eraginkortasun maila handiko proiektuak, energia berriztagarrien erabilera maila handiko proiektuak eta iraunkortasun irizpideen alde egiten dutenak; proiektu horietako batzuk A energia-kalifikazioa eskuratuko dute.

Epe motz, ertain eta luzera, kredituen diru-laguntza eta sorospen tradizionalaz haratago doazen beste finantzaketa-mekanismo batzuk aztertu beharko direla ezartzen du Energia-birgaitzerako Espainiak duen epe luzeko Estrategiak.

ENERGIA-BIRGAITZERAKO EPE LUZEKO ESPAINIAR ESTRATEGIA – FINANTZA-TRESNAK–

- Energia-eraginkortasuneko Funts Nazionalaren baliabideak (EGEF Funtsen 4. Gai-helburutik datozen ekarpenak: “karbonoaren erabilera baxuan oinarritutako ekonomiarantz”) eraikuntzaren energia-birgaitzeko jardueretara bideratzea.
- Europako Inbertsio Bankuarekin (EIB) lan egitea eraikinen birgaitzea finantzatzeko laguntza-programen diseinuan, bereziki energia-birgaitzeari dagokionez (adibidez: Garapen Iraunkorreko Hiri-funtsa JESSICA-FIDAE, hirien energia-birgaitzeko jarduerak barnean hartzen dituena).
- Energia-zerbitzuetako, eraikuntzako eta birgaitzea kudeatzen duten enpresek administrazio publikoen laguntzak zuzenean jaso ditzatela ahalbidetzea, bezeroaren baimen esplizituarekin.
- Jabeen erkidegoei zuzendutako KOI ildoak indartzea, kapitalen merkatuan baliabideak eskuratzeko prezioen jaitsiera ahal den neurrian hobetuz eta Nazioarteko Finantza-erakundeetatik (edo beste erakundeetatik, besteak beste: KfW, CEB, etab.) finantzaketa “biguna” jasotzea ahalbidetuz.
- Finantza-erakundeak laguntzea birgaitzea finantzatzera bideratutako produktu espezifikoaren diseinuan, jabeen erkidegoek ordaindu gabe laga ditzaketen kredituak kobratzeko bermeak emanez (“Berme-funts mugatua” edo abal-formualren bat).

Ikuspegi operatiboago batetik, azpimarragarria da “Eraikinen energia-berroneratzeko finantzaketa” gidaren argitalpen berria. Energia iraunkorreko proiektuak laguntzeko erabil daitezkeen finantza-mekanismoak diseinatzeko eta ezartzeko orientabideak eskaintzen ditu gida honek. Eraikinen energia-berroneratzean eskala handiko inbertsioak abian jartzea eta sektore pribatura inbertsio handiagoak erakartzea da helburua; horretarako, finantza-mekanismo ezberdinak konbinatzea proposatzen da, adibidez: diru-laguntza bermedunak, lehentasunezko maileguak, etxebizitzaren eta eraikinen jabeen ekarpenak, eta abar.

B) Jardueren eskualdeko alderaketa

Aurreikusitako jardueren edukiari dagokionez, aukeratutako EGEF Eskualdeko Programa Operatibo ia guztiek biltzen dituzte haien jarduera gehienak 4. Eta 6. Ardatzetan (nagusiki). Melillako Programa Operatiboaren kasuan soilik ardatz espezifikoa eman zaio hiri-garapen iraunkorrari. Hala ere, ardatz bakoitzeko panoramika integrala eskaintzeko helburuarekin, ondorengo analisian identifikatzen dira bai etxebizitza politikaren eremutik hurbilago dauden jarduerak bai energia-politikarekin zer ikusirik duten gainerako jarduerak.

4. ardatzan aurreikusitako etxebizitza kontuetako jardueren analisiari dagokionez, jarduera tipologia ezberdinen arteko analisi konparatzailetik ondorengo ondorioak atera daitezke:

- **Programa guzti horiek etxebizitzaren eraikuntzako energia-eraginkortasuneko kontuetan nolabaiteko jarduera barnean hartzen dute.**

Etxebizitzaren eta eraikinen energia-birgaitzeko esku-hartzeen finantzaketa barnean hartzen dute aukeratutako Programa guztiak. Eraikinen inguratzaile termikoan (fatxadak, eraikinen teilatuak, patioak,...) eraginez, isolamendu termiko maila altua lortuko duten lanekin lotuta daude jarduera horiek.

Nafarroako Foru Erkidegoan, etxebizitza politiken indartzearen eremuan PO-k kofinantzatutako ondorengo jarduera eta proiektu nagusiak identifikatu dira: birgaitzen diren eraikin batzuetako inguratzaile termikoen hobekuntza: hau da, eraikinen teilatuen, kanpoko eta barneko fatxaden hobekuntza (bai alde itsuan bai leihoetan eta kofaduretari) eta baita arkupeetan egindako jarduerak.

Era osagarrian, zenbait Programa Operatibok, EAEkoa, Aragoikoa eta Extremadurakoa adibidez, eraikinetako osagarri nagusiagoetan egindako energia-berronertzeko jardueren finantzaketa aurreikusten dute, hala nola:

- Ekoizpen termikoko instalazioak jartzea edo hobetzea,
- Energia-monitorizazio sistemak instalatzea,
- Klimatizazio-sistemetan hobekuntza,
- Girozko termikoko sistemen instalazioa edo horien eraginkortasuna handitzea (berokuntza, hozkuntza, aireztapena eta etxeko ur beroaren ekoizpena), generazio-ekipoak instalatzea, energia berriztagarriak erabiltzea ahalbidetu dutenak.

Extremadurako EGEF Eskualdeko Programa Operatiboaren kasu espezifikoan, erkidego honetako etxebizitza parkeko etxetresna elektrikoaren parkearen energia-eraginkortasunaren hobekuntzarekin lotutako ekintzen finantzaketa ezartzen da.

Halaber, Programa Operatibo horietako batzuk energia horren sustapenerako ekintzen finantzaketa aurreikusten dute ondorengo eremuetan: bizitegi-sektoreko instalazioetan eraikuntzarako erabilera termikoetan, nagusiki berokuntza eta etxeko ur beroko instalazioetan (eguzkikoa, biomasa, geotermia), "Elektrizitateko energia berriztatzaileen erabilera handitzea eta erabilera termikoak eraikuntzan" helburu espezifikoaren eremuan."

Nafarroaren kasuan, birgaitze kontuetan indartu behar diren eta funts-hornidura handiagoa behar duten jarduera-ildoan artean, premia batzuk ezartzen dira: eraikinen egitura-egokitzapena ziurtatzea, etxebizitzak hobetzea edo bizigarritasun baldintzak erdiestea, etxebizitzaren energia-portaera hobetzea eta irisgarritasun unibertsaleko etxebizitzak lortzea aurretik egon daitezkeen arkitektura-oztopoan ezabatuz.

- **Programa batzuk planteatzen dute ere eraikinetako eta zerbitzu publikoetako energia-eraginkortasunarekin lotutako jardueren finantzaketa**

Azpiegituren, eraikinen eta zerbitzu publikoen hobekuntzan proposatzen diren esku-hartzeak energiaren ikuspuntutik iraunkorrak diren ohituren garapenarekin (argiztapen eraginkorra, kudeaketa eta kontrol sistemak,...), energia-kontsumoaren murrizketarekin (argiterian, udal instalazioak) eta energia berriztagarrien erabilaren eta eraikinetan kogenerazio proiektuen bultzadaren sustapenarekin lotuta daude (azken jarduera hori ezarri da "Elektrizitateko energia berriztagarrien erabilera handitzea eta erabilera termikoak eraikuntzan" helburu espezifikoarekin aurreikusten duten eskualdeetan).

Halaber, azpimarratu behar da Programa Operatibo batzuk finantzatuko dituztela kontu horren berrikuntzarekin lotutako ikerketak. Horrela, Extremadurako EGEF Eskualdeko Programa Operatiboak 2014-2020 aurreikusten du energia-eraginkortasunaren hobekuntzarekin lotutako ikerketen, bideragarritasun analisien eta proiektu pilotuen finantzaketa eta baita udal energia-kudeatzaileen prestakuntzaren finantzaketa ere (Extremadura).

- **Finantzaketa jaso dezaketen jardueren mugaketa Programa Operatiboetan, haien ezaugarrien arabera**

Programa Operatibo batzuetan aurreikusten da programa horietan sartutako etxebizitza-parkearen birgaitze eraginkorreko jardueren finantzaketa ondorengo eraikin motara muga dadila:

- Aragoiko EGEF 2014-2020 Eskualdeko programa Operatiboaren kasuan, "NBE-CT-NBE CT 79"²³ eraikuntzako oinarritzko araua indarrean ez zegoen bitartean hasitako eraikinak. Arau hori eraikinen baldintza termikoei buruz ari da. Mugaketa horren arabera, jarduera horiek 1980. urtearen aurretik eraikitako eraikinekin lotzen da, hain zuzen ere.
- Etxebizitza bi edo gehiago dituzten eraikinak, Nafarroako Foru Erkidegoko EGEF 2014-2020 Eskualdeko programa Operatiboaren kasuan.

²³<http://www.boe.es/boe/dias/1979/10/22/pdfs/A24524-24550.pdf>

- **Programa Operatiboetan aurreikusitako finantzaketaren esparruko jarduera zehatzen lehentasuna**

2014-2020 programazio-aldi berrirako orientabideen ildoan, programa Operatibo batzuk nabarmentzen dira finantzarriak diren proiektuen aukeraketan haztapen-sistemak barnean hartzeagatik. Sistema horien helburua da helburu ekonomiko eta sozial zehatz batzuk lortzea, eta baita helburu horiek epe luzeko estrategietan sartzea ere, birgaitze eta energia-eraginkortasuneko politiken diseinuan ikuspegi integrala aplikatuz:

- Programa Operatibo batzuk aurreikusten dituzte gizarteratze irizpideekin lotutako hastapen positiboak. Horrela, adibidez, Nafarroako Foru Erkidegoko EGEF 2014-2020 Eskualdeko Programa Operatiboaren kasuan, finantza daitezkeen jarduerak kolektibo kaltebera zehatzen alde haztatzen dira, besteak beste, errenta txikiko etxebizitzaren jabeak. Baita, etxebizitza zaharragoen jabeek ematen zaie lehentasuna ere.
- Aragoiko EGEF 2014-2020 Eskualdeko Programa Operatiboaren kasuan, biztanle gutxiko landa-guneetako ohiko bizitegia diren etxebizitzaren energia-eraginkortasunaren sustapena bultzatzen da.
- Programa Operatibo batzuk birgaitzearen eta energia-eraginkortasunaren hobekuntzaren esparruan finantza daitezkeen jarduerak bultzatzen dituzte eraikin zehatz batzuetan, besteak beste: hezkuntza-zentroak (Aragoi), azpiegitura turistikoak (Extremadura) eta hondakinak kudeatzeko azpiegiturak (Katalunia).
- Euskadiko Programa Operatiboak lehentasuna emango die, inbertsio-lehentasunaren helburu orokorra lagunduz Gain, enplegua sor eta EAEko enpresen lehiakortasuna hobetzeko jarduerak.
- EAEko eta Kataluniako Programa Operatiboak jarduerak esparru estrategikoetan sartzeko ezartzen duten bakarrak dira.
 - Euskadin lehentasuna emango zaie Euskadiko Energia Estrategia 2020ren eta EcoEuskadi 2020 Estrategiaren²⁴ ildoan dauden estrategiei. Eragiketarako aukeratzeko kontuan hartuko da ere Energia 2020 eta Europa 2020 Estrategien ildoan egotea.
 - Kataluniaren kasuan, ondorengo estrategien ildoan egon beharko dute: Kataluniako Espezializazio Adimentsuaren Estrategia (RIS3CAT), Kataluniako Energia eta Klima-aldaketa Plana 2012-2020, Energia-aurrezpen eta eraginkortasunaren Plana 2011-2020, etorkizuneko Energia-eraginkortasunaren Ekintza-plana 2014-2020, Europar Estrategia Horizonte 2020 eta Auzoen, Hiriguneen eta Hiribilduen Hobekuntzarako Legea.

²⁴ EAEko Programa Operatiboan, etxebizitza-parkearen birgaitze eraginkorreko ekintzek bete behar duten helburua zera da: eskaera termikoa eta energia-kontsumoa murriztea, birgaitzearen ondoren gutxienez energia-ziurtagiri C lortzeko asmoz.

- **Hirigunearen hobekuntzarekin eta industrialde zaharren birgaitzearekin lotutako Jarduerak**

“Ingurumena babestea eta zaintzea eta baliabideen eraginkortasuna sustatzea” 6. ardatzaren barruan dauden Programa Operatiboek hirigunearen hobekuntzarekin eta industrialde zaharren birgaitzearekin lotutako jarduerak barnean hartuz gain, auzoetako urbanizazio eta eraikuntza proiektuen finantzaketa barnean hartzen dute ere; hortaz:

- Kataluniako EGEF 2014-2020 Eskualdeko Programa Operatiboak barnean hartzen ditu auzoetako urbanizazioarekin eta eraikuntzarekin lotutako esku-hartzeak (gune publikoaren hobekuntzarako eta gune berdeak sortzeko, eraikinen osagarri kolektiboak ekipatzeko eta birgaitzeko edo erabilera kolektiboko ekipamenduz hornitzeko proiektuak), bereziki ahulak diren eremu/sektoreen berroneratzearekin lotutako esku-hartzeak (aspaldian erabilera industrial izandako guneak berreskuratzea) eta hiri adimentsu (Smart City) bihurtzeko hiri-berroneratzearekin lotutakoak.
- Extremadurako eta Aragoiko EGEF 2014-2020 Eskualdeko Programa Operatiboek, aldiz, helburu espezifiko hori beste motatako jarduerekin lotzen dute, etxebizitza politikatik urrun daudenak. Hortaz, ingurumena hobetzeko jardueren sustapenera bideratzen dira hein handiagoan, besteak beste: deskontaminatzeko eta lurzoruak berreskuratzeako proiektuak, itxitako edo hustutako meategietako hondakinen instalazioak birgaitzeko proiektuak.

- **Laguntza-neurri osagarrien eta sektore-plan espezifikoaren finantzaketa energia-eraginkortasunaren hobekuntzan sartzea**

Kataluniako Programa Operatiboan ezartzen denez, Eraikinen energia-berroneratzerako Estrategia katalanaren²⁵ arabera, baita sustatu ahalko dira ere zeharkako laguntza-neurriak. Neurri horiek aurrerapenak erregistratzera, prestakuntza eta komunikazioa areagotzera, produktu eta zerbitzuen merkatua indartzera, koordinazioa hobetzera eta Kataluniako eraikinen energia-berroneratzerako finantza-mekanismoak garatzera bideratuko dira.

Energia-berroneratzerako Ekintza-Planak aurreikusten dituen neurriak informazio, prestakuntza, okupazio, komunikazio, produktu/zerbitzuen berrikuntza eta inbertsioen sustapen esku-hartzeekin lotuta daude. Jardueren hartzaileak ondorengo hauek izango dira: Administrazio Orokorra eta Tokikoa, enpresak oro har eta, bereziki, turismo eta merkataritza sektorekoak, eta etxebizitzaren jabeak.

Jarduera horiek urteko deialdien bitartez kudeatuko dira. Gaur egun 5 deialdi prestatzen ari dira 2015erako, Kataluniako Generalitateko Energiaren Institutu katalanarekin batera (ICAEN)²⁶.

²⁵<http://www.agenciahabitatge.cat/wps/wcm/connect/36a7378043eb8a8b8f49cddb69a46b2/ESTRATEGIA+CATALANA+PARA+LA+RENOVACION+ENERGICA+DE+EDIFICIOS.pdf?MOD=AJPERES>

²⁶<http://icaen.gencat.cat/es>

Proposatzen diren laguntza-neurrietariko bat zera da: "Etxadi Eraginkorra"²⁷ programa. Programa hori diziplina anitzeko ideia-lehiaketa da Bartzelonako Eixample auzoko etxadi batean dauden eraikinei buruzkoa; bertan, familia anitzeko etxebizitza zaharrak dituzten 22 eraikin daude (% 60 1940.urtea baino lehen eraiki ziren). Lehiaketa estrategiaren laguntza neurria da eta zera lortu nahi du:

- Etxebizitza-eraikinak birgaitzeko ideiak sektore pribatutik jasotzea.
- Epe ertaineko Ekintza-plana sortzea (4 edo 5 urte) finantzaketa publiko-pribatuarekin.
- L'eixampleko beste etxaditarako adibidea izan daitezkeen lanak egitea (2016. Urtea).

EGEF Sektore-planak deritzenak zehazten ari dira Katalunian. Zehazki, gaur egun EGEF Sektore-plana esaten dioguna definitzen ari gara (Eraikinen Energia-berroneratzerako Estrategia Katalana horietako bat da); plan horiek finantzaketa antolatuko lukete inbertsio-multzoetan. Esparru horretan, etxebizitza publikorako energia-berroneratzerako sektore-plana prestatzen ari da Kataluniako Etxebizitzaren Agentzia.

Azkenik, Melillako EGEF 2014-2020 Eskualdeko Programa Operatiboak hazkunde ekonomikoaren, hiri- eta gizarte azpiegituren, ondarearen, zerbitzu publikoen eta gizartearen kontuetan esku-hartze politikak garatzeko helburua duen ardatz espezifikoaren barnean hartzen du. Hiri-birgaitzearekin eta berroneratzearekin zuzenki lotutako jarduerari dagokienez, hiri eta hiri-bizitza proiektu integrala nabarmentzen da, hustutako gunek hiritarren erabilerarako berreskuratu eta berriro erabiliak izan daitezkeen lokalak egokitu nahi dituenak.

²⁷<http://edificisdecatalunya.cat/es/campanas/isla-eficiente/>

6. Ondorioak

2014an zehar, Europa 2020 Estrategiak planteatzen dituen helburu estrategikoen eremuan, finantza-esparru programatiko berria adostu dute Europar Erakundeek.

Funtzen Erregelamendu berriek eta baita Finantza-esparru Erkideak ere, joko-arauak eta europar inbertsio-ahaleginaren indarra kokatu dituzte 2020 etorkizun horretan. Txostenaren 2. eta 3. kapituluetan zehazten den bezala, Estatu Kideen Elkartze Hitzarmenak berriki onetsi dira, eta Estatuko eta Eskualdeetako Programa Operatiboen onespren-prozesua oso aurreratua dago ere, txosten honen oinarria izanik.

Halaber, EB osoan hiri-agenda egitea bultzatzen ari dira Europako zenbait instantzia; bertan, hiriek, herriek eta auzoek betetzen dute eginkizun nagusia jarduera eta programa berrien kudeaketa koordinatuan.

Elkartze Hitzarmen horren edukiak eta baita Europako Batzordeak edo Sustapen Ministerioak argitaratutako azken komunikazio eta lan-dokumentuek azpimarratzen dute programazio-aldi berri hori aprobetxatu behar dela hiri-garapenarekin eta, hortaz, etxebizitza politikekin lotutako ekimen eta proiektu berritzaileak diseinatzeko eta ezartzeko, ondorengo alderdiak oinarritzat hartuz:

- Programa Operatiboen eta Egiturazko Funtsek kofinantzatutako ekimenen esparruan, hiri-berroneratze eta birgaitze politiken sustapenarekin lotutako ekimen eta proiektu berritzaileen finantzaketarako potentziala.
- Proiektu mota horri ekiteko premia, hiri-garapen iraunkor eta integratuko estrategietan sendoki oinarrituz. Batzordeak gehitu dion "integratua" ezaugarri hori jarduerak eta programak diseinatzeko jarraitzen diren prozesu politiko eta instituzionalak hobetzeko deia da, eta etxebizitza politiken eremuan ondorio interesgarriak ditu:, besteak beste:
 - Etxebizitza kontuetako jarduerak tokiko mailako hiri-garapeneko estrategia bateratuan sartzeko aukera, beste hiriguneekin eta landadunekin modu koordinatuan eta koherentean.
 - Maila administratibo ezberdinen arteko lankidetzak laguntzeko mekanismoak eta tresnak hobetzeko premia, arlo bakoitzaren premietara egokitzen den jarduera-esparrua eduki ahal izateko.

- Estrategia horien diseinuan ekonomia- eta gizarte-ehuneko eragile nagusiak nahasteko garrantzia, proiektu horietarako oinarri ekonomiko, sozial eta finantzari sendoa bilatuz. Horrela, finantza-tresnak optimizatu eta bideragarritasuna eta horien itzulkin ekonomikoa eta soziala indartu nahi da.
- Finantza-tresna eta sistema berritzaileak ezartzeko aukera, itzultzen ez diren diru-laguntzaz haratago doazenak, 2007-2013 aldiko praktika onen arabera, horien artean JESSICA erkimena nabarmendu daitekeelarik. Batzordeak tresna berritzaile horiek sartzea bultzatzen du proiektuei finantzaketa-osagarria eskainiz.

Aipatutako aukera-esparru horrekin alderatuta, txostenaren laugarren eta bosgarren kapituluetan egindako analisiak, EGEF, Estatuko eta Autonomietako Programa Operatiboen edukia eta finantza-irismena aztertzen duena, ondorengo gogoetak aurreratzea ahalbidetzen du (balioztatuak izan beharko direnak behin programa guztiak onetsita):

- Jarduerak eta programek zehaztaperen maila baxua dute. Era osagarrian, programa horiek sektoreetan duten irismena aztertzeko aukeraren falta igarri da; horrela, adibidez, etxebizitza kontuetako jarduerak zenbait ardatz eta helburuen barnean daude.
- Aztertutako Programa Operatibo ia guztietan, ikergaiaren (etxebizitza politikak) eremuko jarduerak abian jartzeko aurreikusitako diru-hornidura murrizta da 2014-2020 programazio-aldirako EGEFk aurreikusitako diru-hornidura osoarekiko.
- Edozelan ere, 4. eta 6. ardatzetan hauteman daitezke bosgarren kapituluan aztertutako Programa Operatiboen esparruan finantzatuta izango liratekeen jarduera batzuk, etxebizitza eta eraikin-parkearen energia-eraginkortasunaren hobekuntza politikekin neurri handian lotuta daudenak.
- Aztertutako Programa gehienetan hiri-garapen iraunkorreko ardatz espezifikorik ez da sartu, non hiri-garapen integratuko Estrategiak sartuko bailirateke, Batzordearen orientabideak jarraituz. Eskualde Askotako Programa Operatiboak soilik, eta baita Madrilgo Erkidegoko eta Ceuta eta Melilla hiri autonomoetako eskualdekoek barnean hartzen dute horrelako ardatza.
- Programek ez dute finantza-tresna berritzailek barnean hartzen, Batzordeak horrela gomendatu badu ere. EAeko, Kataluniako eta Nafarroako Foru Erkidegoko programek soilik mota horretako finantza-tresnak datozen urteetan barnean hartzeko aukera zabalik laga dute.